

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 20666 - PREZIOA 6 PEZETA

Il... il... il... Eri... erio... eriotza



LILIAN BOARD

22 urte bete berri zituela joan da beste mundura Lilian Board. Ihes bezala, korrikalari antzean ote? Baita zera erel Zortzi illabete luzetako gaixotasunak eramane du. Min biziak gorputz ikusgarri orl menderatu, apurtu eta zuloa bota du. Kirol-zaleen artean egundoko samina eta utsunea utzi du arazoak. Lilian, belaualdi berri onen ikur bat bait zan: Gordiña, alala, bizitzeko gogoz beti lehertzen. Kirola beretzat jaitbat omen zen, jo-las bat, obeto eta gehiago bizitzeko ere bat. Entrenametuatarako jaxten zuen erropa batean «I run for fun», au da «Ni, Korrika, gozateagatik ibiltzen naiz zeraman idatzirik». Au zan bere egitaraua, bere bizi-moldea.

Mexikon, 1968gn urtean, bera izan zan neska korrikalariaren artean itxaropen sudiarenak jasotzen zituzana eta orain Lasaretoko «Cross» era etorria dan frantses Colette Beson-ek irabazi zion zentimetro batzuegatik. Lilianek arazoa ontzat eman zuen, nahiz eta berak bi urtetan Mexikoko entrenametuaren bere indar eta esperantza guztiak jarri izan. «Bai, azkarregi jo d et. Ikaskala ez d et ahetzuko, 1972gn urterako, Munich-erako, ein zuzen».

Atenasen, 1969gn 800 metro

2'gn orrian jarraitzen du



KANBOJIA

Foto ori, Mienan, Kanbojia, eza-roaren 23an artu zan. Dieter Ludwig aleman periodistak. Phnom Penh-tik iparraldera dagoen erri txiki au erabat desegin zuten kanbojier soldaduek. Beste askoren, artean, 19 urtetako norbidera sarjento bat arrepatu zuten. Bestalde, norbidera sarjento bat arrepatu zuten. Bestalde, norbidera sarjento bat arrepatu zuten.

Komandantea, erituen gorputzak sendatzen ari zan bitartean, soldadu gazteek —zenbait 14 urte besterik etxuan— «gorputz» eskari zuten etsai buru lepotik ebaki, eta esku banatan buru bana zituztela fotografoaren aurrera jotzen zuten, itxura dan fotoak atera zezaizkien. Dieter Ludwigek dienez, gizonen burua mozteak, eguneroko ogle da Kanbojia. Alaz guttiz ere, egun artan neuk ikusi nuena gauza espantagarria izandu zan. Kanbojierrek eta bienamitek beren etsaien gibelak jaten zutela entzunik nintzan. Egun artan ikusi nuen. Norbidera miten bi «gorputz», tripa eta estoda, dena ustu zituzten. Gibelak kentzera zijoazkiela, ofizial batek, muturreko bana eman zien ortan ziharduten soldaduei. Andik gutxi, soldadu gazte batek auxe bota zidan: «Gibela jauna, emen, Kanbojiako babarrunekin nahasiz jaten da. Oso gozoa da. Zeuk jan nahi izanez gero, pres-tatuko dizugu. Inbistatuta zaude».



ERNEST UANDÍ

Kamerun-en ere, sei eriotz-izgor. Sei gizon, politiko-arrazolagatik auzipetuak. Mundua gutxitxo zalantzetan ote dan pentsatzen dugu: bel-tzak bai dira eta gainera, tokitan dago Kamerun...!

Younde-ko tribunalek, urtarillaren 13an erabaki zuten auzia. Gerotik, Ndongo gotzela eta beste lau gizonen bizitzeko baimena —bizitzeko baimena!— eman zale. Ernest Uandí-ri ezta ori ere. Prozesak, zelebe ra au ere. Gotzai bat, salerosle bat, espiritu utsa dan gizon bat, «maki»-en buru dan bat eta bere bi laguntzaile. Irudian dakarkiguna da, ein zuzen, Ernest Uandí, 46 urtetako gizona, Kamerungo askatasuna lortu nahiean borrokan dabil-tzan «maki»-en azkeneko buru izan dena. 1948gn urteaz gero borroka latzen jorratua, Bere Erriaren askatasuna ofizialki lortu zanean, Uandí-ren Partidoa, «Kamerungo Erriaren Elkarte», legez debekatu izan zan. Ala ere, azpi-lanean edo ahal zuten bezele, K.E.Ekoek aurrera jo zuten, eta beti eraso egin izan dlete Gubernukoek. Azkenean, 1970ko Abuztuaren 19an arrapatu zuten, Ahmadu Ahidjo Lehendakariaren gizonak.

Akusazio gogorak bota dizkiete, bai Uandí-ri, bai Ndongo gotzela-

2'gn orrian jarraitzen du

NON ZER

- MONOD MINTZO
Larresorok ... 3 garrenean
- FEDERALISMOARI BURUZ
Lasak ... 3 garrenean
- JULIO CARO BAROJA TA NAFARROAZKO ENDA-AZTERPENA
Etxanizek ... 8 garrenean
- LIBURUAK ... 8 garrenean
- ELIZA BERRI BATEN BILLA
Latxagak ... 11 garrenean

ZERUKO ARGIA AZTERKETAN

Ale onen xazpigarren orrialdean, zerbañ berezia atera nahi izan dugu. Kuadro bat or ikusiko dezun, datoz beteta. Asmo bat izan dezun lan ori egiterakoan, alegia, galdera oni erantzun:

Joan dan urtean zer izan zan Z. ARGIA?

Batek baiño gehiagok laster esango du: «H» arazoaren ankapean egon dan edo eztabaida guzien kutxa besterik ez dan astekari bat da Z. ARGIA.

Ditekeana da ala izatea. Guk oraingoz ez degu ez ezirik ez baitezirik esango. Azterketa bat egin ondoren gure iritzia emango degu.

Ale onen bidez egin nahi dana, reflexiorako ofiarri bat ematea da.

Xazpigarren orrialdeko kuadroa, tresna egokia da ortarako. Z. ARGIA itzegiterakoan, dato orietaz ederki ballatu gindeke. Ortarako, x, beste elbururik ez dute. Reflexiorako bide izan.

Baño ori dana zortarako? Egia argi ta garbi ikusteko. Guk elburu bat daukagu: gure asteroko au obetea. Obetea, erriaren serbitzurako denez, bere eginkizuna ondo bete dezan.

Orretarako plan bat eratu behar da. Baño giroari begiratzeko lehenik ikusi egin behar, bere egungo egoera nolako dan. Intuizioa beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa, ordea.

Gure ustez intuizio utsezko garraiki joan ziran pikotara. Zori txarrez maila orretatik oraindik ez gera atera. Baño ahalik eta gehien egingo degu ori gehiago gerta ez dedin.

Batez ere gaiari eldu behar diogu. Iriz sakonez ondo ermutia egon behar du Z. ARGIAK.

Ori lortzen badu, gaitzenteak berez etorriko dira. Gai aldetik, mami aldetik ondo jantzi!

Onak aldakuntza bat baiño gehiago ekarriaraziko du. Eztabaidak sortu ere, sortuko ditu. Mindutako jendea ere izango da. Izan ere, geure patxaran jarraitzea ain erreza da!

Ez degu lotan egon nahi. Gizartea aurrera dijoat eta gure ere berekin batera joan behar degu, ahal dugunean aurrera artuaz, gainera.

Zenbaitentzako, Z. ARGIAK gauza «ximple» bat izan behar du. Erria, izan ere, oso behean aurkitzen da! Ume txikiari bezela ala eman behar! Etzeok toki txarrean! Ez degu demagorik egin nahi, baiño ez gera irizit ortakoak. Eta dagokigunez, astekari oneri «folklorista» izaten ez dлогу utziko. Ori nahi dutenak, jakin bezate aurka gogor egingo diegula.

Sakontasun eta reflexio eza, nahiko garbi dagoen gauza da, gure artean, gu emen txorakeritan galduta ibiltzeko.

Gure erriaren etorkizunarekin ari gera jokatzen. Erria egunero egiten ari da. Ori egi birtuzten Z. ARGIAK badu bere eginkizuna. Egingizun ori ondo betetzen ahaletik egingo ditugu.

BERTSO BERRIAK NERE BORDATXOTIK

NEGUA

Laino beltzak itxas aldetik datoz;
aate, oillo, igesi biltokira;
arkume txikia, beruntz al zatoz?
txoriak ere, mutututa, kabira.
Aizean indarra,
tximistan su-garra,
oztoztan danbarra,
euri, kaskabarra.

Negua da bizitasun eza;
berotu barrutik eta kanpotik;
egin txurrit, ume; aitona, edan beza
amonak patxaran egindakotik.
Zartaian giharra,
lapikun oillarra,
pertzan esne-aparra,
jan zak gazta zarra!


Illuna dauka kopeta neguak;
joan zaite su ondora, umetxo maite,
bazterrak artu baino len lanuak,
amonan mantalean bildu zaite.
Aitonan biarra,
berpiztu txingarra;
amonan dardarra,
umetxun negarra...

Elur malutak dana txurituaz,
ain argi, ain polit, lurak jantzi,
bainu bezutuz den lurra ikutuaz,
ta guk uda degu beti goraintzi.
Illun, illun, illun,
berdiñak gau ta egun,
zeru urdina, nun?
danak galdu itun!

Ez da irtingo zulotik xagu zarra;
neguan guztioz makurtuta,
otza ta illuna, danontzat txarra;
eskutxuk al daukazu otzminduta?
Mukik txintxilik,
ez miztu, ixillik,
lo daude txikik,
nal morokillik?

Umetxo, lo egizu; arnas berua
amak eta aitat seaskan emanik,
eguzkiak laister gure zerua,
jarriko du berri apain-apalifik.
Beto eguzkia,
zeru urdina, argia,
izar, ilargia,
au baita bizi!


JUSTO BALZATEGI
Zumárraga



TXIMIST-INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO-INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra, Italia
TUROLLA Sp A, Italia

Goimendi - Automatismo



Lantegi ta landolaki:
Jolastokietak (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 53840 (iru ari) ta 13860
Telex. 36172 GOIME E
Erakusketa ta dendak:
Iparragirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Ordezkaritza:
Euliojo Sordán, 18. Urrut. 220535-36
VITORIA

DANETIK ZERBAIT

Nik ustea nuen bezela, sarrera
ona izan zan Azpetitiko zezen pla-
zan.

Eguraldia ere ona egokitu zitzaiz
korrikalariei, Terrenoa kondizio
onetan. Ezeri etzeukaten aitezkerik
ematerik.

Neurketa ederra ikusi genduan.
Gutxitan izaten dan bezelakoa.

Batek bear zuan irabazle, "Irunt-
xiberrir" gertatu zan, bein da be-
rrico.

Alare, ez dugu zer esan txikie-
nik Iratzeniztat. Jeko bikaña egin
zuan; bete-betekoa.

Dirua, guk itxaroten genduan
bezela, nabarmen azaldu zan "Irunt-
xiberrir" alde: "eun berrogeiri",
otsegiten zuten korredoreak.

Beeko dirua, "ogeitamar euni",
eskeintzen zan.

Galdere bat egiten nuan aurre-
ko egunetan:

Azpetitiko irabazleak, zortzi ki-
lometroko ogeitasei minutuan egin-
go ote ditu?

Ta galtzaillea izan zan ogeita-
sei minutuan egin zitua.

Irabazleak, "Iruntxiberrir", amar
segundo lenago bukatu zituan la-
nak.

Au da: 25 minutu ta 50 segun-
doan.

Milla bider esan dedana berri-
tzera noa.

Erlorja da lñor engañatzen ez
duna. Kontatzen oso xamurak
dizian zortzi kilometro 26 mi-
nutuz aspilik egin dituztenak.

Irakuz eskola desberdina atera
zuan Azpetitin. Etzan Tolosako es-
kola.

Berazubiko pistari, Irakuz izan zan
lenegotik azkar asi zana; "Irunt-
xiberrir" bentaja asieratik kendu
ziona.

Azpetitin bateko bestera.

Ogeitabigarren bueltan jarri zan
"Iruntxiberrir" Iratzen orpoetan.

Ogeitabi buelta, bi kilometro ta
berreun metro dira. Ordurako, be-
raz, plaza erdia kendu zion alarrak
astiasnarrari.

Gero, denbora luezan, Irakuzi se-
gi besterik etzuan egin "Irunt-
xiberrir".

Azken aldera, lanak bukatzeko
pare bat kilometro patta ziranean,
sarrera bizi batzuk jo zituan "Irunt-
xiberrir" aurrea artu nairik.

I'gn orrialdean asiera

LILIAN BOARD

takoen korrika apustua irabazi zuan
lehenbizi eta gero 1.600 metroa-
koa, lan onekin munduko txapela
Bretaña Aundira eramanez. Orduan
bai ikusten zuala begi onekin Mu-
nich-ko Olimpiadetan! Baina joan dan
maiztean minbizi sortu zitzaion
eta atzetik, eriotza. Galduz, gal-
duaz, gorputz ikusgarri ori urtu be-
ri guztiek egin zuten negar. Aben-
zala egin zitzaion. Munduko kirola-
duaren 26an.

ERNEST UANDIE

ri: Matxineda egin nahi izatea. Irat-
tzen bizi izana. Milla eta gehiago
personei itzala. Gogaita iraultza-
leen laguna omen eta Europara
130.000 dolar atera omen ditu Ka-
merundik. Abogadurik? Uandie lau-
nak eskatu zituenak, "komunistak"
dirala eta ez diete errian sartzen
utzi. Torturapean egindako deklara-
zioak dira probarik aundienak; ori
eta erditutako bi fusil zahar.
Yacounde ko sei zuzenpetak "Ba-
milek" deritzan arrazakok dira eta
auzi onet euria guztia jarri du su-
tan. Beste Bafia bat, ote dator Ka-
merun aldean?

Irakuz etzion utzi. "Ik bai, bai-
ta nik ere".

Bost, sei, edo zazpi aldiz pen-
tsatu zuan alarrak astiasnarrari
aurrea artzea Besteak ez uzten.

Ura jendearen gozamenak! Ango
txalo ta oiutak!

Sarrera aiek bizi ta pipermi-
du zuten jokoak. "Iruntxiberrir"
kontraioari segitzea besterik egin
ezpazu, joko geza ta leloa izango
zan. Markak ere eskasagoak.

Batek jo ezkerre, bestea ere bea-
tua zegoan.

Jendea txoratzen irten zan pla-
zatik. Ondo, oso ondo portatu zi-
ran bi gizonak. Ikusi ditzagin
"Iruntxiberrir" irabazlearen denbo-
rak:

Lenengo kilometroa, 2'56".

Bigarrena, 6'03".

Irugarrena, 9'18".

Bosgarrena, 13'40".

Seigarrena, 19'13".

Zazpigarrena, 22'35".

Zortzigarrena, 25'50".

Irakuz galtzaillearen denborak:

Lenengo kilometroa, 3'01".

Bigarrena, 6'11".

Irugarrena, 9'27".

Laugarrena, 12'42".

Bosgarrena, 16'.

Seigarrena, 19'23".

Zazpigarrena, 22'44".

Zortzigarrena, 26 minutu jux-
tu.

"Iruntxiberrir", denbora askoan,
errenatik bizi izan zan. Len esan
bestea, ogeitabigarren: bueltarako
plaza erdiaren bentaja kendu zion
kontraioari.

Ba-llieke ni oker egotea. Auxe
daukat buruan sartua.

Irakuz artara beartu bala igan-
dean, "Iruntxiberrir", ogeitabest
minutuan egingo zituala zortzi ki-
lometroak. Asko esatea da, bear
bada.

Baina ni au sinistuta nago. Se-
kulako sasola zuan. Berak aitortu
zidan oso errez eta gustora ibili
zala.

Gorputzaldi ona gertatu; oso gu-
txitan bezelakoa.

Berez ona izan gainera. Gizon
txikia, baina indar asko anka, be-
laun eta gerrietan. Ori duk erre-
minta!

Beste ezbehar ikaragarri baten be-
rrir eman bear dizutet, irakurle mai-
teok.

Baserri bat gutxiago Gipuzkoan.

Beste ainbat eta ainbat bezela,
suak joerazi dio bela; suak ondu-
tu ta desgindut du.

Alako Alzola baillarako "Etxe-
berri" baserria duzute oraingoa.

Ilbertzaren amakagarren egu-
nean arratsaldeko ordubat eta er-
diak inguruan zan okerra.

Ez nolanaiko okerra ere!

lñor konturatu orduko, berebizi-
ko indarra artu suak. Alze aundia
gertatu, ala bearez. Ezer egiterik
ez familiakoak.

Etzuan merezi. Biziaz galtzeko
arrixkua besterik ez.

Amazazpi ganadu buru zenden
"Etxeberri" baserrian.

Oietatik amabi buru galdutak di-
ra; erreak, kixkalak.

Idiparea ikultutik kanpora zan;
Argatik salbatu ere.

Tru belk egin zuten erioan iku-
lutik iritetea modua. Aietako bat
nahoa erre, baina ateratzeko mo-
duan izango al da, noski.

Etzan nolanaiko familia "Etxe-
berri" baserrikoa.

Amalau seme-alaba, ta oraintxe
amabosgarrenaren zai.

Ezeriko gabe gelditu dira, soñean
dituzten erropa zarrak izan ezik.

Mueble, jantzi, oiñetako, lan-
tresna, labore..., danak galdutak.

Goian zerua ta beian lurra.

Berri-berriro asi bear bizimoduari
aurpegi ematen.

Zeren pozarekin?

Ogeitalau urtean bi baserri erre
zaizkio.

"Nebera" izeneko baserrian jaio,
azi ta bizi zan.

Suak irentsi zuan "Nebera".

Gero, "Etxeberri" baserrian jarri
zan bizitzen.

Esan dizutet zer gertatu zaien.

Bolara beldurgarria da oraintxe.

Ereziago "Munain", lenengo. Do-
nostiko Ibaeta baillarlan "Amezke-
ta-Borda" baserria, urrena.

Orain, Alzolako "Etxeberri".

Ez daukagu besoak gurutzetuta
egoterik. Alzolako famili au ez da-
go orrela utzerik. Lenengo premiak
osatan alegindua gaitzen, besterik
egino expadugu ere.

Suskrizioak ideki dira. Alako
Auntamentuan bat; Alako taberna
guzietan ere bai.

Zarautzen, Bar "Otzarretan" eta
Bar "Azken-Portun".

Azpetitin, Bar Patxon eta Bar
Astigaragan.

Getarin, Loidineko Bodegoian.

Donostin, Egia baillarako Bar
Jauregin.

-oOo-

Txarrerako etsaia,
etsai indartsua,
Alzola baillarak gaur
iperinu kutsua.
Baserriak ondazten
dago gogotsua,
zenbat kalte egiten
ari zaigun sua!

-oOo-

Urtetako izerdi,
neke ta jardunak
suak erriki gabe
irentsi ditunak.
Gaur mixer gorrian
antsika lagunak,
erriktu gaitzen
biotzik degunak.

-oOo-

Alzolan "Etxeberri",
benetan ariote,
ango bizilagunak
negar dariole.
Ondasun danak suak
kendu dizkiete,
soñieko zarpa zarrak
besterik ez dute.

-oOo-

Eratat ondazteko
goiak eta beak,
ganadutan egiñak
ba-ditu bereak.
Ikultuko kalteak,
kalte asarreak,
bei ta zekor, amabi,
ba-dira erreak.

-oOo-

Famili ortan sarri
ba-zan ugalmena,
frutu berriak bata
bestean urrena.
Nola geldituko zan
amaren barrera?
laister izateko du
amabosgarrena.

Baxari

LENINGRADO

Zail gertatu zitzaizen judutarrei Eijptotik irtezea. Ezinezko Errusiatik ateratzea. Antziñako Itasgo Gorria kupidu zan. Gaurkoak ez du eruririk.

Eraso gogorren azpian daude judutarrak Errusiako Gobernuaren-
pean. Orain dela 50 urte, bi milia sinagoga bazituzten ere, gaur
amabiren bat besterik ez dituzte. Ez daukate heberkeraz ezer
argitaratzerik. Etzale larunbata jai egiten utzi.

Eta judutarrak bezalaxe zapalduak arkitzen dira an bizi diran
georgiar, tartar, mongoldar, armeniar eta kurdoak. Zapalduak
beren jakintza, chitura, lege, kultura, jolasak eta abarretan.

Au onela izanik beren Israelera edo askatasuneko beste errial-
de batera irten nahi lukete judutar askok.

Ezin, ordea, ateak itxirik bait daukate. Etzale irteetako balme-
nik ematen. Gogor astindua dira askatasun-zaleak.

Beraz, ez da batera aritzekoa, ihes egin nahi izatea. Ez da-
kigu ala dan baiña onelako zerbaite erasten zaie Leningradoko
azupetuei.

Ihazko Ekainaren amabostean izan ziran detenituek Smoly'ko
aeroporotian. Ihes egiteko asmoz ahal zijaizten? Ez dakigu garbi.
Leningradoko auzitegiaren garbitu gabe gelditu da beintzat.

Alaz guziz ere esku gogorra astindu du Leningradoko auzi-
tegiak. Aietako bi erailteza erabaki du naiz-eta gero U.R.S.S.eko
buruzagiak zigor latza orri barkatu. Besteentzat luzarorako itzala
eskeintzen zuten. Geroa laburtuak izan dira urte oiek.

Auzia, ateak itxita izan. Etsiztaltzen sartzen utzi kanpoko
lege-gizon eta berri-emaleei. Estatuaren segurtasuneraren aurkako
pekatutzat joa izan zan egazkin ura berenganatu nahi izatea.

Mundu osoa jekiti zan Leningradoko auziaren aurka. Bidegabe-
keriaren aurkako sena duan guzia, alegia. Nahiz eskubikoak edo
eta nahiz ezkerrekoak egin bidegabekeria biotz-onoeko eta zuzen-
tasun gose-egarri diranak «non licet», ez, ori ez, deadar egiten
dute.

Noliztik eriotz-epaieiakin zigortu ditek egazkin baldutzea? Bai
ahal dago eruraren eta zigorraren artean berdintasunik?

Ez ahal du gizonak errialde batetik bestera eldatzeko eskubi-
derik? Zergatik ukatu zitzaizen eskatu zutenean Errusiatik atera-
tzeko balmena?

Zergatik ateak itxirik, itxilean eta izkutuian, auzia erabaki nahi
izan da?

Ona zuzentasun-zaleak egiten dituzten galderak.
Beste toki gehiagotan ere «zakurrak anka-utsik». Diktadura
gorria ala zuria, beti diktadura, beti maltzur eta menderatzaille.

Baia ikasi bezate bain betirako euskal-esaera zaharra: «odol-
kiak ordaitzen».

'IT IS TOTAL' (MARCUSE)

Unik ez eta gainera txikitzea bai
zen, hipplek St. Patrick-eko ugarteak
erostea etsi zuten. Halere, Eire-ko
ukatuaz, biziera berri bat, pentasera
Erresumarekin harremanetan jarrai
ondoren, beste bat erosi eta haren
komunitate bat erailzeko, «gure gi-
zartekik» kanpo bizi izan dira.

Gure jaun andre aguragarriek zer-
nahi pentas bezate, hipplek ez di-
ra ez, egi eta erazoi guzia dute.
Gainera egi eta erazoi guzia dute.

Eta hauxe da kaka: GURE ZI-
BILIZAZIOAK EZ GAITU BETETZEN.

Ez ahal zerate konbentzitu gure
sozietate osoa dagoela helburueta-
rik bazterturik eta gutxitu alienatu-
rik? Ez ahal zaudete konbentzitu-
rik gure zibilizazio guzia huserkie-
tan ari dela? Noiz konbentzitu-
ko gara ekonomia eta teknika gu-
zian mustrokeritza?

Telobistan, automobilean, hoviek
guziengand bide datza zorian!!
Hutsa, hutsa eta hutsa dira kon-
sumoko gizarie hurren xedeak. Pi-
kuta!!

Uste dugu, hipplek frogatzen du-
tela, posible dela gizarie huren
balio guzitiak sustraitik aldatzea.

Hipplengand atzeman uste dugu egi-
tako iraultzaeren saliera bat.

Egokio iraultza haur sustraitzea
da, kalitatekoa da, erabatekoa da.
Marcuse-k dion bezala, it is total.

Egun, erabateko iraultza hau egin
behar da. Gizarie total aldatu
behar da. Ta uste dugu hipplismoak,
lehengo sozietateak gaitik behera
berri bat, izatera berri bat, hitz ba-
ten gizarie berri bat altxako duela.

Gure Herriarekiko, kalitateko
iraultza total hau proposatzen du-
gu gaitzeko.

Ez dugu sentitzen bizimodu ten-
tel hau ankaz gora jaurtiki eta hip-
plek erosteko diren ugarte horre-
tara ihes egiteko gogo biziirik?

Ibon Sudupe

MONOD MINTZO

Beste batez agindu nuena be-
tetzekotan natorikize gaur. Eta
Jacques Monod-en «Le Hasard et
la Nécessité» (Zoria eta Halabe-
harra) libur bainak bi hitz esan-
go ditut.

Monod ez da artista bat, biolo-
gikari bat baizik. Alegia: zientzia
gizon bat mintzo zaigu, eta ez
letra gizon bat. Zientziari buruz min-
tzo zaigu ez Zientzia hori gaingri-
raki ezagutzen duen gizon bat,
1955ean Osagintzako Nobel Saria
irabazi zuen jakintsu bat baizik.
Arretrez entzun dezagun, beraz.

Zer dio Monod-ek? Zoritzarrez li-
burua irakurtzeko aukera izango ez
duenari, zer nik asango? Nolatan
edo zein hitzez bilduko hemen li-
buruaren muin barnea? Hitz honez
beharbada: egarri, jakintza egar-
ri. Murgildua gauden misterio osoa
agertzen bait da Monod zorrotzaren
lerroez bestaldean. Ilunpe ezin trin-
koago hori ahaztu egiten zaigu as-
kotan; eta oso egokia da Egia-
ren bilatzaile porrokatu hauek gogoraz-
tea. Alegia: munduaren izkutea ez
duela gauro Zientziak ez kamustu
ez deuseztu, sekundu eta ilundu
baizik. Ez digu Monod-ek alortzeko
bildurik erakusten; eta Mauriac-en
esakuntza ezagutu egiten du bere;
«askoz ere sinetsi-eginago da era-
kasle jakintsu horrek diiona, guk
sinesten duguna baino».

Liburua hizketik hortzera irakur-
tzea ategian bat dela esan ondo-
ren, baska bekik liburuaren ideia
nagusitatzeko alpatzea. Irakurleari
buruz jakinarazien zaizkidan hain
zuzen.

Ba genezien Monod zibernetika-
ren oso aldekoa dela. Berriago da,
ordea, eta gutxitu modaren kontra-
koa, zibernetikaren eta dialektika-
ren artean Monod-ek egiten dituen
berezketak; baita bigarrena oso
mugatu eta ahulduz. Dionez, Bio-
logian ez dago egiazko dialektika-
rik, ezta eboluzioan ere.

Oso inportanteak dira, era be-
rean, hizketari buruz —«hizketa»
hitza Hizkuntzalaritzaren aldetik
hartu behar da: berbete gisa, esa-
kuntza alegia— Chomsky-rekin oso
batera, ematen dizkigun berri harri-
garriak. Monod-en ustez, lehenda-
biziko hizkuntzaren ikastearen ka-
kua, molekulen beren mailan bi-
latu beharra dago. Haurrak ama
hizkuntza ikasteko erakusten duen
eraztasunari biologi oinarri bat
dagokio: buru muinean hizkuntzari
daxtekoan hutsuneak bete beharra
bait legoa. Bigarren eta ondoko
hizkuntzetan ez dago honelakorik.

Ezagueria eta hizkuntza, bestalde,
fenomeno zahar bakar baten bi aur-
pegi iruditzen zaizkio Monod-i.

Irakurle askok hartuko du gogo-
tan (gure «moda»-ren kontra arraz
doalako) liburuaren zehar «animismo»
aren kontra egiten dituen kritika
bortitzak. Zeri deritza «animismo»
ordea, frantses Nobel Sariak? Ez
beste lekutan esan ohi dena ba-
karrik; ez erlijio arkaikoa bakarrik;
ezta erlijioa bera bakarrik ere. Gau-
za bat da «animismo» Monod-en
ustez: baloreak eta jakintza, mun-
duaren eraketa eta munduaren
izana. (Zientziaren atzerakala) nola
edo hala ezkondu eta egokitu nahi
izatea. Beste hitz batez esateko:
Moralia eta Zientzia elkartu nahi.

Monod ez da, honi buruz, bate-
re laxoa edo errazkeren aldekoa.
Behin eta berriz esaten digu egia-
ren bilaketa lizifrina zail bat dela,
eta ez gizonaren joera berezko bat.
Gizona, berez, «soluzio» bat sine-
tera lerratzen da aisa. Hain zuzen:
«azalpen oso baten beharra da gi-
zonarengan berzkoa; eta azalpen
hori ez izatea, alderantziz, ezin
egon sakon baten iturburua». Hau-
za da, Monod-en ustez, animismoen
arrakastan kaka: gizonak «ikusi»
egin nahi du mundu hau zertara
ari den, eta gizonaren bizirik zer
sentidu duen. Honetxek azaltzen
du mytologia mota guzian zabal-
kundera eta iraupen harrigarria. Eta
horretxegatik —dio— Zientzia ez
da oso berandu arte Gizadien sor-

tu; mytologiak eta animismoak, gi-
tzona eta natura, zela eta egin-
beharra, lotu izan dituztelako, mis-
terioak behin eta bitirako «argitu»
dute. Jakina denez, Zientziaren oin-
harria beste hau da: Zientziak ez
duela filosofi baloreen arazoaz ezer
esan behar. Zientziak aldi batera
uzi dituela esperimentazioaren gal-
bahen erailki ezin ditekian guzia.

Zibernetika zerbaite ezagutzen du-
tenek ba dakite ordinarroek aisa
gaitzitzen dituztela problema; bai-
na bano ere ezin dezaketela pro-
posatu. Hau oso inportantea da:
xedeak, eta baloreak eta giza hel-
buruak beraz, Zientziatik al daude.

Kondairaren edo Kosmoaren fun-
tasia beraz, Zientziatik kanpoko iru-
ditzan zaio Monod-i. Gaur ber-
bera esaten dute behin eta berriz
Jakintza gizonak.

Marxismoa, hortaz, monismo bat
eta azalpen osoak bat den alde-
tik, funtsez beraz iruditzen zaio
Monod-i animismo hutsa eta an-
tizionifikoa.

Marxismotik etorri diren giza-
tasuna eta sozialismoaren, sustraik
beretik zaizkio kaltegarri: «Le
seul espoir du socialisme n'est pas
dans une "révision" de l'idéologie
qui le domine depuis plus d'un
siècle, mais dans l'abandon total
de cette idéologie». Sozialismoaren
esperantza bakarra ez da orain
dela «monde bat eta gehiago»
nagusitu zaien ideologiaren «errebi-
tzo» edo eraberritze bat, ideologia
horri bazterketa osoa baizik.

Eta indar berriaz agian beste hau:
«Gauza erraza zen ikustea ezen
materialismo dialektikoa zimen-
duta harturik erailka zen kondaira
igarlekeria mehatu guziz beterik
zetoerla jaiotzatik beretik; eta me-
hatu horiek, dakigunez, obratu
egin dira».

«Animismo» deritzan liburu na-
hasketa hori zaio Monod-i, hitz
batez, alienazio guzien iturria. Egia
esateko, eta jator aitortzen du,
Monod-ek «ez dakit» Zientziaren
postuladok eta gizonaren helburu
beharrik, Egia eta Absolutu egar-
ria, nola elkar ditekian. Zientzia-
ren oinarria gogorra zaio, eta esan
egiten du. Esan ez balu ere, ante-
mango geneioen, askotan Pascal-
en modura hitzitzen duela. Dei-
hadarrak dira urrun, benetan. Biologia
molekular delakoan aurkitu
dituen mirariak txundituta utzi
dute, beste antiz biologiarri bezala.

Zientziaren bide hotz eta hertsia-
ri eutsi behar zaila iruditzen zaio
halere.

Baina, «gutxi onhartzen badu gi-
zonen Zientziaren mezu hau —dio
Monod-ek— esnatu egin beharko
du, eta milaka urtetan atxiki duen
ametsari utzi; bere bakardad guz-
tizkoa, bere sustraitikako bitikeria
alortzeko. Iljituak bezala ikusiko du
orduan bere burua, bizi behar duen
mundutik at. Asmatu duen musi-
kari buruz gor zalon Kosmo hau
jakingo du aurrerakoan bere espe-
rantzekiko, bere sofistikazkiko eta
bere hinkitzeko arduragabe eta
hotz».

Larresoro

FEDERALISMOARI BURUZ

Erri txikien bentajak eta etorkizuna

Alexis de Tocqueville arras eza-
guna dugu.
Parisko irian, 1805garren urtean,
jaio zen.

Amar bat urte goragoa, Alema-
niako Mosela deritzan errialdean,
K. Marxek ikusiko zuen argia, leen
aldiz.

Biak pentsalari kartsuak, bata de-
mokrasiaren aldetik ta bestea so-
zialismo zientifikaren sortzaila da-
nez.

Familiko tradizioari bere burua
lotuaz, A. de Tocqueville legezki
ikasteari ekin zion, gaitze gaitze-
tik.

1831ko maiatzaren 11n, Ipar-Ame-
rikako Manhattan izeneko izaroan
jexi zen, itasoz zear ibiltzeaz
asperturik.

Egitiko berezi bat zeramakien esku
artearen Txede zinaz, bear zituen,
gertu gertutik, Ipar Amerikako pre-
songoziak ikusi, eta ikasi.

Baina, askotan gertatu oi denez,
egiteko batekin joan izan arren,
beste zertxo bat eginkit itzuli zen
Tocqueville jauna. «Zorionez»!

Joan etorri onen frutu edo ar-
naria izan zen bereala argitaratu
zuen «De la démocratie en Amé-
rique» liburua.

Liburu onetaz ez dugu besterik
esango urrezko liburu dela baizik.
Aberastanunik ugari ba da liburu
alpatuan. Bai orixe. Oba famatu
orren edozein txoko miaztea aski
da urte pusak arkitzeko.

Alexis de Tocquevillek maite di-
tut erri txikiak, ta ba ditu zenbait
arrazoi erri txikien ber-jabetasuna
defenditzeko.

ERRI TXIKIAK ETA ASKATASUNA

Ona emen bere testimoniantza
bat: «—Libertadea da erri txikien
berezko eugaratsa edo klima».

Oraindik gelago beste nonbait:
«—Gizaldiak joan eta gizaaldiak eto-
rri erri txikiak agertu dira beti egiaz-
ko libertadearen esakia».

Puntu onetaz, historia bera zaigu
testigu eta lekuko.
Edeoren erriri, Tocqueville bera
mintzo da, naiz eta txikitian «yareli-

ta aske» izan, gero azitzen joan
zen erren eta neurrian, libertadeak
ies egin zion.

Erri andia eta libertade osoa ezin
ditezke elkarrekin ezkondu, dio.

Erri andien kolkoan ba da naiko
lan libertadea gordetzea.

Puntu au bukatzean onela dio
Tocquevillek: «—Etorkizunari buruz,
igerle edo profeta izan gabe, auxe
baiezto liteke, alegia, erri andiak
gelago arriskatzen dutela libe-
tadez, txikiak baino».

Iz bidez, historiak onetaz adie-
ratzen digu libertadea ez dagoela
erriari lotuta, baizik erriaren «txi-
kitasunari».

Libertadea bizi mailari atxikita
dagoen zerbaite da.

Erri baten gabezia edo pobrezia
ta libertadea ezin ditezke elkarre-
kin ondo konpondu.

Baina zer gertatu oi da onelako
errietan? Agintza andiko biderik ez
dagoenean, erriarrak gauza baten
bala dabilaz, alegia, bizi, ongi bizi-
tzen bila.

Dudarik ez dago. Bizilagunen ugari-
tasuna, ongi biziitzea ta lasaita-
suna erri txikietan arkitzen da.

Gabeziarik ez alde batetik ta goko
dirudun mailarik ez bestetik,
erri giza maila sendoro oinarri-
turik dagoela.

Bitarteko maila onek ematen bait
to erriaren egoerari berezko ekili-
brio eta egiazko pakea.

ERRI TXIKIAK ETA ABERRIAREN
JAIERA

Erri txikitlan aberriaren jaiarak
erro ta sustrai sakonak ditu.

Erri zabal eta andiak berekin da-
karzki aberriaren kontrako etsai
amorratuak. Aberastanun geiegiak
eta gabezia lotsegariak direla, oi-
tura ustekal direla, erriarren
rekotasunen burruka dela ta abar
ta abar.

Estadu andiaren berezko arris-
kua aberriaren etsai direnak.

«Federalismoa ez da besterik
larre motxeko demokrazia el-
kartura».

Baina, emen, galdera bat ipintzen
du Tocqueville jaunak.

Nola, nondik, erri txikiak izango
du arrotz edo kanpoko etsaien era-
sotatik bere libertadea gordetzeko
indarra?

Izan ere, beldurraren epazta zin-
tzilika dagoen artean, libertadea ez
da besterik itxi-utsa eta utsala baino.

Nola, nondik, erri txikiak indarra?
Erri txikiak elkarrekin federatetik
soil soilki.

Orduan, erri txikiak bere barne-
tik, txikiak datza, ba du libertadea,
ta, bestalde, ba du indarra; elkar-
tua edo federatua denez, anai

Jose Lasa

ERRI TXIKIAK ETA BIZI MAILA

Libertadea bizi mailari atxikita
dagoen zerbaite da.

Erri baten gabezia edo pobrezia
ta libertadea ezin ditezke elkarre-
kin ondo konpondu.

Baina zer gertatu oi da onelako
errietan? Agintza andiko biderik ez
dagoenean, erriarrak gauza baten
bala dabilaz, alegia, bizi, ongi bizi-
tzen bila.

Dudarik ez dago. Bizilagunen ugari-
tasuna, ongi biziitzea ta lasaita-
suna erri txikietan arkitzen da.

Gabeziarik ez alde batetik ta goko
dirudun mailarik ez bestetik,
erri giza maila sendoro oinarri-
turik dagoela.

Bitarteko maila onek ematen bait
to erriaren egoerari berezko ekili-
brio eta egiazko pakea.

ERRI TXIKIAK ETA ABERRIAREN
JAIERA

Erri txikitlan aberriaren jaiarak
erro ta sustrai sakonak ditu.

Erri zabal eta andiak berekin da-
karzki aberriaren kontrako etsai
amorratuak. Aberastanun geiegiak
eta gabezia lotsegariak direla, oi-
tura ustekal direla, erriarren
rekotasunen burruka dela ta abar
ta abar.

Estadu andiaren berezko arris-
kua aberriaren etsai direnak.

ARGIA

Zuzendaria: MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Argitaratzailea: Nafarroako-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoak. (Mayor, 50-1.-Burlada Pamplona).

DONOSTIA: Oquendo, 22 - Tel. 26066.



EUSKAL-ERRIAN "INSIGNIS" LERRA EDO PIÑUEN NEURKINTZAN JAKINGARRI BATZUK

Metro bat luze, zabal ta sakon dan kaxan sartu leikezan apeek pilloari egur-neurkin edo Estereoa deritxo.

ESTEREO NEURRIA

Apeak bardin eta borobillak diranean estereoaren neurria auzte da:

$$0,785 \text{ m}^3 \cdot \text{beraz m}^3/\text{ak} = 1,274 \text{ estereo eukiko dauz.}$$

INSIGNIS PIÑUAREN ESTEREOA

Alan ba, apeak borobillak eta luzera berdinekoak izan arren, danean lodiera berdin ez dabe eukiten, eta orduan uts gelago gelditzen da, eta estereoaren pilloa gitxi gora beera 0,769 m³ra jaisten da.

Onet ganera apeak luzera guztian borobil bardiña ez dabe eukiten, ertz batetik bestera meagotuz joaten diralako, estereoaren bitarteko eunek 1,3 gelagotuten dira, eta metro biko apeak eunek 1,3 gelagotuten dira, eta metro biko apeak eunek 1,3 gelagotuten dira, eta metro biko apeak eunek 1,3 gelagotuten dira.

Baita gogoan euki bear dira lakatzak eta oker-uneak. Beti bardin ez diran zeatasunok gogoan artzen ba'doguz, bien bitarteko neurri au eumon geinke:

$$\text{Estereoaren pilloa} = 0,746 \text{ m}^3 \text{ au da:}$$

$$\text{luze, zabal ta sakon dan metro bat} = 1,341 \text{ estereo. Au}$$

metro bat luze daben apentzat.

Apeak metro bi ala metro bi ta ordikoak, bitarteko utsuneak diralako diralako pilloak txikiago urtetan dau.

Danentzako neurri bat ezin izentatu leike, orretarako zelango neurrikoak diran begiratu bear (metro bi ala metro bi ta erdi-koak), baita piñudua sarretan da ala ez, eta egin diran inasteak be ba.

Ontzat eumon leiken estereo ba auxe izan leiteke: 0,746'tik 0,70'ra.

Bear dan legez ondo ipinitako apeak pillo baten sartzen diran estereoko zenbat diran jakiteko nalkoa da auxe: Apeak pilloaren luzera, beera zabalera ta sakonereagaz zenbakoitzu edo multipliketza.

ESTEREOAREN ASTUNTASUNA

Ori jakiteko, eze ala sikurari begiratu bear. Mendi axetan siketutako m³ egurrek, 650'tik 700 kilo inguru izaten dauz, beraz, estereo bakoitxak 500 kilo.

Egitez esan leike metroko tonelada baten, apeak-estereo bi sartzen dirala.

ESTEREO BATEN SARTZEN DIRAN APEAK

Metro bi ta erdioko apeak ebagiten badira mee aldeko lodiarria gogoan euki bear da.

Punta meeneko ontzak Zenbat apeak Apean luzera metrotan

[Ontza bat = 2,34 cm.]

2'	60	150 metro
3'	40	100 "
4'	28	70 "
5'	20	50 "
6'	15	37 "
7'	11	26 "

Metro luzera bakoitza gure mendietan landutea kostetan dana, alde batetik bestera erortea, Papelerak ordaintzen dabena, naiz mine, zerra-olak eta errotak eta abar ordaintzen dabena gogoan artu ezker. Beroz jaubeak erabagi jakingarrak atera leikez.

EGIAZKO PILLOA

Gure egurra artzen daben Papel-olatan batez be, artzen da-bezan apeak metro kubikoa (m³) ordaintzeko oltura sartuz doa.

Orretarako kamio bat elduten danean, egurrek pixeduta gero, bertatik erakutsi edo «muestra» bat artzen dabe, ta pixeduta gero urez betetako ontzi baten sartzen dabe, eta ontzitik ganezka ateratzen ura neurtuz jakiten dabe, muestrearen egiazko pilloa zein dan.

«Regla de tres» deritxon zenbakuntza bidez, jakiten dake kamioan ekarri dabezan apeak egiazko pilloa zein dan.

Metro irukotzu edo kubikoaren sal-neurria emoten badeuske, estereoko zenbat balio daben jakiteko, leen esan dogunez, nalko da estereo 0,75 ala 0,70'guz zenbakoitzu edo multipliketza.

EGIAZKO PILLOA TA AZALAGAZKOA

Insignis piñuaren asiera eta obarlagazko «tabla» guztietan, irukotzu edo kubiko deritxon metrotan zuzit osoa sartzen da, zuzitaren goi beera gutxita azal ta guzti.

Azal ta puntea kentzeaz batez beste eunek 15'tik 20'ra galditzen da.

Au da: «tablak» esaten dabenean piñu batek metro kubiko edo irukotza dabela, puntea ta kentzen jakezanean 0,85 ala 0,80'ra jaisten da.

«A LA CUARTA» TA AZALBAKO PILLOA

Galtzalek onetan ez dira gelditzen.

Aipatu dan piñue, 0,85 ala 0,80 m³ egiaz eta azal barik zerra-olari saltzen jakeanean, baso-jaubeen kaltetarako sartu dan ekandutxar bat dala-ta, neurri orrek eskatuten dabenez ez da ordaintzen, borobilla laukoiztutako kentzen jakezan atalak eratsita baiño. Orren galtzeia eunek 21,43 da a la cuarta deritxon eran saltzen danean.

Labur: Zutik dagoela azal ta guzti metro kubiko bat daben zuzitza edo arbolatza egiaz eta azal barik 0,80 ala 0,85'ra urrituta gelditzen da, eta «a la cuarta» eran ordaindu ezker, 0,6285 ala 0,6678 bakarrik ordainduten deuske zutik, azalagaz eta punteraiño metro kubiko bat eukleren.

Au ona dala, ola ala zerra-ola batek egurre «a la cuarta» esaten jakon eran, esaterako 1.000 peseta m³ ordaintzen badau, egiaz eta azal barik, neurriaren 0,7857 bakarrik ordaintzen daben ezker, sal-neurria 785,70 peseta m³ egiazko sal-neurria.

Bernardo Mesanza Ruiz de Salas
(Eusko-Basoen Aldezko Alkartasuneko)

TEOLOGIA E.U.T.G.-n

Donostiako E.U.T.G. Unibersidadean, Teologiaz egiten dan ikastaroa berritu da. Eguberri oporraldiaz gero. Iru illabetez ontan «Sisnimenak gaurko kulturari egiten dituen desafioa» izango da gai nagusia.

ARDOA, GARESTI

Errioxan diotenez, aurtengo ardoa garestia izango omen da, alcohola egiteko ikaragarriko erosketak egiteko premian aurkituko dirala-ta.

«ARANZADI», BETI LANEAN

Joan dan Abenduko «Aranzadi»-ren orritxoan ikusten dogunez, laster argitaratuko da «Anuario de Eusko Folklore» 1969-1970 urteak-ria, ain zuzen. Baita «Munibe» aldizkariaren aurtengo lehen alea ere, au Jose Migel Barandiaran jaunari omenaldi bat eskeini nahiz. Bera du Aranzadik, ohorezko Lehendakari. Larogel ta bat urte-tan, lanean ari da beti Barandiaran jaunna eta berari eskeiniho dizkiote antz jakintsuk, kondairak-aurrari edo prehistoriari buruz egin dituzten lanak. «Munibe»-ren ale berri au, beraz, poz aundiz itxaro dugu danok.

«EL PENSAMIENTO NAVARRO»-REN ZUZENDARI BERRIA

J. Xabier Sustaita jaunna izendatu berria da «El Pensamiento Navarro», Iruineko egunkariaren zuzendari, urtarrillaren 13az gero.

8 MILLOE PEZETA NAFARROARENTZAT

Izotzak ondatu zituan fruituaren ordain berria, «Ministerio de Trabajo»-dakolako 8 milloie pezetata eman dizkio Nafarroari.

TXAPELDUN NEGARGARRIA

Yugoslabiako Apajita irian izan dan Munduko Osasun-Billeran ikusi denez, gure Orix ibala da munduko txapel-dun... zikinkerian, kontaminazioan. Lotsagarria!

Iruineko JENDEA

1970gn urtean Iruinean, 6.476 aur jaso ziran. Il. 1.428 pertsona il ziran. Beraz, ilaz baiño 5.050 bizilagun gehingo dira.

EUSKALERRIKO KONDAIRAZ

Donostiako «Forum Larramendi» erakundeak Euskal Kondairari buruz ikastaro txiki bat antolatu da. Lehenbiziko ikaskaiak J. Migel Barandiaran jaunak eman ditu, kondaira-aurreko euskaldunen erlijio-etaz. Paleolitiko aroko ehizatarien erlijioa, «homo sapiens»-aurreko erlijio-kutsuak eta beste zenbatit gaur aipatu zuten, danak Jezukristo baino 30.000tik 6.000 urtez aurrekoak.

Bigenen maius Andres Mañarik jaunna izan da eta bere gaita: «Gure Errian noiz asi zan kristautasuna, nork ekarri zuten eta zein bidetarik sartu zan». Historia-zalek zer dioten arazo orietaz eta nola zabaldu zan Kristoren erlijioa Euskalerrian zehar.

PERTSONA ELDUENTZAKO IKASTAROA

Altzako «Juan XXIII» Eskola Profesionalean, bi ikastaro dira asi berriak pertsona elduentzako biak, langileentzat ain zuzen. Lehenbizikoaren gaita: «Planokoa nola ikusi». Bigarrenengoena: «Pasagile» (Trazador calderero). Ikastaroa urtarrillaren 25ean asi eta bost illabeteakoz izango da, astean bost egunetan, arratsaldeko 6'terdietatik 9'terdietera. Dirurik ez da eman beharko.

ZUBI BERRIA Iruinean

Iruinarrak poz pozik ditugu, «San Jorje» deritzan lekuan zubi

astez aste

berria egitea erabaki dalako. Presupuestoa 39 milloetakoa da. Behar dan zubi berri onen neurriak: Luzera 88 metro, zabalera 27. Izan ere, Gipuzkoatik Saldubara dizean bidea zubi ortatik pasako da eta iri barrua, kamioi eta beste auto askoren joan etorrietatik, libre geldituko da. Ba dirudi aurtengo udan obrak asteko moduz izango dala.

EUSKERA, MAIXU-ESKOLAN

Donostiako Maixu-Eskolan (Escuela Oficial de Magisterio) aurtan asita, Euskera irakatsiko da. Eziera Lege berriak, maixuak umen izkuntza ezagutzea beharrezko duela esan bait du. Ba zan garaia!

«EL PENSAMIENTO NAVARRO»-REN ZUZENDARI BERRIA

J. Xabier Sustaita jaunna izendatu berria da «El Pensamiento Navarro», Iruineko egunkariaren zuzendari, urtarrillaren 13az gero.

8 MILLOE PEZETA NAFARROARENTZAT

Izotzak ondatu zituan fruituaren ordain berria, «Ministerio de Trabajo»-dakolako 8 milloie pezetata eman dizkio Nafarroari.

«BELTRAN, CASADO Y CIA.»

Bilbaoko «Beltran y Casado y Cia.» lantokiko buru diranak, 410 langile afai dituzte kafean, zituzten langile danak, alegia. Krisis ikaragarriakin zebiltzan orain dala lau illabetez gero eta azkenean lantokia itxi egin behar izan dute.

«FUNDICIONES SANTANA»

Bilbaoko «Fundiciones Santana»-n pertsona bat illa eta beste ama-bost oso zaurituak gertatu ziran, burdin-galda, 1.500 bat graduko

berotasuna zualarik, gainean erori zitzaizenean.

GALDAKANOKO ZORIGAITZA

Galdakanon berriz iru gizon il ziran, auto-bide berrian lanean ari ziralta, lubizi batek azpian arrapatuta.

NEKAZARIENTZAT, ORDIZIAN

Ordizian, «Extension Agraria» dalako erakundeak lan aundia egiten du nekazariel bere jakintza gehitzeko asmoz. Orain bertan adierazi digutenez, laster egingo dute ganaduari buruz ikastaroen bat: Pentsoak, ikulu berriak, ganaduen gaitzak, sileak, eta abar izango dira egingo diran sailak. Ikastaroa bukatzerakoan Bizkaiko eta Santanderoko leku berezi batzuetara ikustaldi bat egitera ere joateko era izango dute ikastera joaten diranak.

ALEMANIAKO DIRUA, BILBAO-BEOBIA

Auto-biderako

1500 MILLOE

Illaren 1500 izenpetu zan Alemanian Frankfurt-en, diru-aurratzea, Bilbao-Beobia auto-biderako behar dana. «Commerzbank» eta «Deutsche Bank» diru-estek izan dira, batez ere, aurreratu dutenak. Ogei urtetarako eta % 8 interesaren truke.

DONOSTIAKO TELEFONOARENGATIK

1.000 MILLOE

Milla milloetarik Espainiako Telefonikak Donostiako Telefono Municipalak erosi du, azkenean. Abenduren 19an izenpetu zan bi alde-tatik, tratua. Oraindik ez dago oso argi, milloi oiek Donostiako erriar-entzat izango ote diranak...

MUROK

JOSE ZINKUNEGI-REN
OPTICA BERRIA DONOSTIA
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
HERNANI, 4 DONOSTIA

GUKELESA

Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onekin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne soilla (esterilimatu)
- Esne autsa
- Esne-gaita
- Guriña
- Yogur
- Batidunak

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA
ayestaran
DONOSTIA
BURNI - SALGAIK
Urbietan, 25

ELECTRODOMESTICOS
ETXERAKO ELEKTRO-
TRESNAK
Urbietan, 27 - Isabel II, 2

RAILITE
LEGEZKO
ZABALTXAILEA
Aldaonea, 4

Urrutizikiak:
4300 ta 26787

Brasilgo Dominiko giltzapetuak diote:

KRISTAU MAITASUNA POLITIKOA DA, EDO BESTELA EZ DA EZER

Brasilgo dominiko fraile giltzapetuek idazlan sakon bat eginik dute, eta idazlan horretatik zedozer jaso nahi diuzet, garrantzi handikoa iduritzen zait.

Elizak munduaren aurrean Kristo agertu nahi badu, bere fedea ez du buruzkoa soilik izan behar, bere bizitza osoari dagokion fedea bai. Maistasuna da Elizaren arnasa, eta gizonari dagokion guzia, Elizari dagokio. Gizonaren minak sakon sakonetik ikuitzen du Eleiza.

Eliza eta elkarte politikoa, bakoitza bere erara, gizon bakoitzaren eta giza elkartearen onerako daude. Honekin, Eliza politikaz kutsututa dagoela, esan nahi dugu. Baina ez politikaz kutsututa, partidu eta politika aukera bat berea egiten dualako, gizonaren asmoak betetzen lagun izan nahi dualako baizik. Lehen limosnarekin dana egin zegoen, pobre izatea guzua naturala, edo jatorrizkoa zala jatorritasun bat zan; baina gaur ba dakigu pobretasunaren sustraiak ez dirala jatorrizkoak edo jatorriak, eta limosnak ez duala ezer konpontzen, egoera pizka bat ezitzi baizik. Pobretasuna erakunde politiko eta sozial ekonomikoek egiten ditue, eta kristau maistasunak ezin ditu erakunde horiek ahaztu. Gaur kristau maistasunak erakunde eta egitura horiek aldatzen bere ahalagin guziaz egin beharko ditu. Kristau maistasuna gaur politikoa da, edo bestela ez da ezer.

Beraz Elizak bai hitzez eta bai batez ere ekitez balio sozialak erakutsi eta gaurko giza elkartearen grazi argibideak eta pekatuak agertu beharko ditu.

Elizaren egin beharra erlijioetsua da bai, baina egin behar erlijioetsu horrek giza elkartearen legezaren jasozen lagundua behar du. Eliza gizonaren serbitzuan izan behar du. Erlijioetsotzak Jainkoa da guzia, Maistasuna dute guzia, eta ez dute biderik izan behar beren bizitza ania zapalduetatik arrixkuean ikusteko. Apaiza gizonen serbitzura dago. Artzal bezela, bere ania guzietan zeharo elkartuta dagoela agertu behar du. Gizonaren mina ahazten badu, Kristo bera ahazten du.

Brasilgo aginteak kristau sozial erakutsiak ahaztu egin ditu. Eztago ez askatasunik, ez justiziarik. Kristauoi hitzegiteko eta batez ere ekin-terri lotzeko ordua heldu zaigu. Aginteak Eliza sakristi barnean ikusi nahi luke, espiritual hutsa, gizonak alingerutzat daukana. Aginteari Sameritar ona, gizonaren arimategi soilik arduratua, ikustea zait atsegin.

Brasilgo egoeraren aurrean kristauak protesta egin behar dute. Herri bat hil-zorian arkitzen da, eta honek, Kristo hil-zorian dagoela, esan nahi du. Baina protestak bide guziaz hitxi dituzten tokian, hautamenik, Konstituziorik, manifestazioak edo agerpenak egiteko biderik eztago tokian, nola egin protesta? Eztaukagu egoera hau onartzerik, gizon baina gutxiago izatea onartuko bai genuke, eta aginteak gauzak aldatzeko bide paketsurik ez digu utzi. Indardun diktadurak uzten digun bide bakarra, iraultzaren edo erreboluzioren bidea dugu; herri zapaldu eta itxaropenik gabeko baten babes jatorra da, bere bizitzegatik, burruka egiteko eskubidea.

Iraultzak egoera zapalduen ondorio bat besterik ez dira, eta hau batez ere egia, Hego Amerikan da. Eztaukagu geldi egoterik Brasilen; ez dago besterik irten biderik. Gure anaianaganak maistasunak bultzatuta; egia, justizia eta askatasuna Berri Onaren bidez begiratu; eta Eliza ta kristau geranez dugun egin beharra kontuan izanaz, herriarekin bere askatasunagatik burruka egin nahi dugu; baina burruka honetan, kontuan izanaz, gure indarkeriadun militar diktadurak sortu duan bildurrez betetako giroa, eta hortara san Paulok argitartutako bideetik gailitz: «Kristok askatasunerako askatu gaitu: Hartan, beraz, egon, eta ez zaitezte jopu-uztzerpera itzuli» (Gal. 5).

ZUBI

1970 MUNDUAN ZE HAR

Urtarrilak 11.—Ogei ta amar illabete gudan pasa ondoren, Biafra-ko borroka bukatzen da

Urtarrilak 17.—Amasei urtetako muti gazte batek Lille-n, Frantzia, bere buruari su e, aiteh dio gizarie onen aurka protesta eginaz.

Urtarrilak 28.—Txekoslovakian, Cernik jaunak, Koneilluko lehendakartza galtzen du.

Otsailak 1.—Holandako gotzalei jaramonik egin gabe, Paulo Vigarrenak apaizen zelibatoari buruzko eztabaia moztu egiten du.

Otsailak 9.—1936ko gerraz gero, lehen aldiz, Espainiako «Ministro de Asuntos Exteriores» dalakoak, ikustaldi ofozaola egiten dio Parisko Gobernuari.

Otsailak 15.—Laos-en, 400 ta gehiago Ipamerikar egazkiek komunisten gorde-lekuak bombaz josiak uzten ditue.

Martxoak 1.—Suez-ko konportan, arabiar eta Iseldar artean guda jarraitzen du.

Martxoak 2.—Rodesia Republika bihurtzen da.

Martxoak 19.—Willy Brandt, Sartal-deko Alemaniaren lehendakari danak eta Willi Stoph, Sartal-deko Lehen-Ministroa denak, elkar ikusten dira.

Apirrilak 13.—Mikis Theodorakis, Grezian askatua izaten da.

Apirrilak 24.—Txinak bere lehen satelitea botatzen du.

Apirrilak 29.—Kebek-en, liberal Partidoa, auteskudeetan irabazte gertatzen da.

Maiatzak 4.—Roger Garaudy, Partido Komunistatik bota egiten dute.

Maiatzak 16.—Republika Dominikana, Balager lehendakaria berri ere lehendakari bezela aukeratua izaten da.

Maiatzak 27.—Frantzia «gauche proletaire» maoista taldea, Gobernuak deseginen du.

Ekainak 7.—Jordanian, gerillero eta gobernuaren artean odol-borroka gogorra sortzen da.

Ekainak 8.—Argentinan militar reaktzionarioek agintaritza artzen dute.

Ekainak 18.—Brotaina Aundian konfederadoreak agintaritza lortzen dute.

Uztailak 5.—Luis Etxeberria Mexikoko lehendakari zarako autatua izaten da.




Brasilgo gudariak, tortura-saioak egiten.

Uztailak 6.—Colombok, Italian, gobernu berria osatzen du.

Uztailak 23.—Roger-en egitaraua aurrrera dijo.

Azutuak 7.—Kosigin eta Brandt-ek itun bat izenpetzen dute.

Azutuak 8.—Arabiar eta Israeldarraren arteko guda gelditzen da.



Polonia

Azutuak 31.—Ghana-n, Akuffo Adodo jaunak lehendakari aukeratzeko dute.

Irailak 4.—Salbador Allende jaunak buru bezela iristen da auteskudeen bukarera.

Irailak 15.—General Motors-eko 350.000 langileek uelga asten dute.

Irailak 16.—Une gorria Erdiko Sordalean. Bai Amerikarrek, bai Rusitarrek gudan armenen bitartez zuzenki sartzeko arriskuan jartzen dira.

Irailak 27.—Nixon-en ibilladia, Europan zehar.

Urriak 1.—Cairon, Nasser-en illetak. Nasser-ek utzitako utsunen latz au, El Sadat-ek betetzen du.

Urriak 5.—Montreal-en, Cross jaunak bahitua izaten da eta 10ean, berri F.L.Q.ek Laporte jaunak jasotzen dute.

Urriak 10.—Bodibian Juan Jose Torres-ek agintaritza artzen du.

Urriak 21.—Aita Santuak tortura gaitzesten du.

Urriak 24.—Chilen, Salvador Allende jaunak agintaritzara igotzen da.

Azaroak 9.—De Gauleren eriotza.



De Gaulle

Azaroak 11.—General Motors-eko uelga bukatzen da.

Azaroak 13.—Sirian Hafez Assad-ek agintaritza artzen du.

Azaroak 20.—Txinak, O.N.U.-n sartzeko aia boto ez dituen beregnatu.

Azaroak 22.—Gineako eraso-aldia edo inbasioa.

Azaroak 26.—Soljenitsynen Estokolmora, Nobel saria jasotzera ez joatea erabakitzen du.

Abenduak 1.—Italian legez onartua izaten da ezkontz-austea Donostian, Beihl, Alemaniako konsul jaunak, bahitua izaten da.


Abenduak 3.—Burgosko prozesua asten da.

Abenduak 7.—Poloniaketa Alemaniak itun bat izenpetzen dute.

Abenduak 20.—Gierek jaunak Polonian agintaritza artzen du, Gomułka boteaz.

Abenduak 28.—Burgosen sei euskaldun iru bi aldz—eriotzen ditazte.

Abenduak 30.—Francok, eriotzaren truke, 30 urtetako kartzela ematen die seiari.



Oyal s. a.

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

Baserriaren alde

BUKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyak
Ongarri ta abonak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

MAITE IDIRIN

Euskal Kantari bat Parisen

Maite Idirin Solatxi, bizkaitar andereño gazte bat dugu. Beste zenbait euskaldun gazte bezala atzerria joan beharrean arkitu zen eta kantaria denez abestuaz du bere bizimodua ateratzen Paris-en. Lehen diska bat zuen egina eta orain beste bi ateratzeko asmoak dituela jakin dugu. Ez da ez baste kokildu gazte hau, bere bi-deari jarraitzen dio, bere hitzak ondo agertzen duten bezala.

—Parisko zure entzuleak euskeraz ez dakienez, ze pentsatzen du zure kantuei buruz?

—Enrek pixka bat ezagutzen dituzte gure Herriko gora-beherak, eta galdetu egiten dute ia kantu horiek zer dioten. Nik gehienbat kantu zaharrak abesten bait ditut, harriturik gelditzen dire gure folkloraz. Hitzak ez ulertzean horregatik ditut kantu horiek aukeratu.

—Erraza izan ahal zaizu euskaldun abestari bezala, Parisen bizimodua ateratzeko?

—Behin lagun batzuekin joan nintzan musika entzuteko asmoz, Hegoa Amerikako musika entzuten dan lokal batera. Lagun horietako batek nagusia ezagutzen zuen ta berari agertu ninduen euskal kantari bezala. Kantatuz aritu nintzan eta nagusiak atsek zahalik nituela aurercantzean esan zidan, gerotik arrats gutxi abesten dut.

—Parisen euskal kantua ezagutzen al da?

—Ez, oso gutxi. Ia batere ez.

—Ze jende mota joaten da zeuk abesten duzun areto hortara?

—Mota askotako jendea. Batzuk afaldu bitartean musika pixka bat entzun nahi dutenak eta beste batzuk, gure arazak dakizkizanak eta kantuen ondoren elkar hizketak eduki nahi dutenak.

—Urrun ziranec, nola ikusten duzu euskal kantuen mundua?

—Nun nahi agertzeko, nahi ta nahiezko iduritzen zait asko ikasi beharra duguia. Herri bezala ezagutzen gaituzten eraz, kantu munduan ezagunak izan nahi badugu, asko ikasi beharrean gera.

—Ze zure iduriz, momentu honetan ba al da inor euskal kantari herrien artean, kanpoan gellendu itekean?

—Oso zaila da nerezat galdera herri erantzuna ematea. Aspaldian Herriak kanpoan naiz eta ezin nezake erantzunik eman.

—Euskal hizkuntza erabiltzea kantuetan, oztipo bat da ala ez?

—Artista ona baldin bada, ez da, ez, oztipo. Artista behar da izan, pertsonaltateak eduki, zerbaite eman kantuen bidez.

—Momentuan zeuk, Parisen zaudelarik, Herriak urrun zeranez, zer da gehien nahi zenukeana?



Maite Idirin Parisen

—Euskal herriko kantari bezala nere Herriari kantatzea.

—Ze kantu mota da zure entzuleek gehien maite dutena?

—Zalantzarik gabe, euskal kantu zaharrak. Hauek izigarri maite dituzte.

—Maite, zu gazte zera eta zure barrenean hainbat eta hainbat gauza dituzuez kanpora agertu nahian zeure nahi kantu hitzaren bidez esan gabe akor zera?

—Kantu horiek, gehienbat, kanpoko jendearen pozgarritako abesten ditut, herriarrei diska bidez eskintzen dikeiet, besterik ezinean. Horiek dira nik egiaz maite ditundak abestiak eta herriak tasterentzun ahal izango ditugu nere azken kantu berriak.

—Maite, amaitu baino lehen, eta batez ere zure egoera jakinik, Z.

ARGIAREN bidez zerbaite gehitu nahi baduzu zure herriarentzat, orain dugu bera.

—Gure herriaren momentu txar huetan, denetaz asko gogoratzen naizela. Horra!

—Azken hitz hauek ez ziran batere erraz atera Maite Idirinen ezarritik, bihotzean korapillatu zitzaizkion eta baita gurcan korapillatuta sortu ere zerbait euskaldun gazteren egoera gogorra gogora arazi bai zigun.

Maitek, egun batean bere herria itzultzeko zoria izango duela, biziki espero du.

Bitartean estudiantzen ari da, euskeraz abesten du, nola edo ala bere bizia ateratzeko, bere herriari atxikia prest da beti entzute guzti Euskalari zere den, ze arazo dituen agertzeko. Beraz, esan dezakegu, kantari bat Parisen zinez euskalduna dugula.

Inaki Beobide

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)

Avda. de Francia, 1

— I R U N —



1.896

GIPUZKOA-KO PROBINTZI ERATEIXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru beartzen gure
«PRESTAMEN SERBITZARITZA» (Servicio de Préstamos)
balla zaitze

Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Zure baserrira erosteko edo obetzeko
Aberea —azalenda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak —obetzeko
Jakiñean jarri zaitze: Donostia-ko gure
12 ofizietan eta Probintziako 63 sukursaletan

Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago
Donosti-ko txoko beten,
bein ezagutzen dutenak zintzo
takite aruntz joaten.
Nai dan aukera ba-dezu beti
jaten bezela edaten,
oberik ezin arki ditek
merke ta ondo ematen.

Fermin Calbetón, 4
DONOSTIA

QaR·Sorta

85.—MARTIN YANEZ DE ARRIETA (XVI-XVII GIZALDIETAKOA)

Azpeitian bizi izan zan 1609 garren urtean. Eibarren be bai gero.
Eskola maixua, Andres Yañez de Arrieta eskola maixuaren semea.

Euskeraz idatzi eban Dotriña Kartilla bat. Ripaldarena itzuli.

Gipuzkoako Diputazioari eskelñi eutsen 1609 garren urteko apilean.

Azkune abadeak ikusi eban Dotriña Kartilla au. Euskera ona eukala,

eta ondo itzultia egoala, beaz dan moduan, zintzotasunez. Orixe esan

eban Azpeitiko erretoare onek.

Azkoitiko Errazti bikarioak be ikusi eban Dotriña Kartilla, Iruñeko

gotzainaren aginduz, eta ontzaketat emon eban onek be.

Emon eban baimena Iruñeko gotzainak; inprimatzeko baimena.

Konpunduta egoan egillea, Arrieta inprimatzailleagaz liburua argita-

ratzeko. Berreun duket kostako zala Karlos Labayenen moldietegiko bierre.

Zer gertatu zan Euskal Dotriña onegaz? Argitaratu barik gelditu zan.

Ikusi Insaustiren idazlan jakingarria «Boletín de la Real Sociedad

Vascongada de los Amigos del País» aldizkarian, 1958 garren urteko

tomoan 78 garren orrialdea eta urrengokoak.

Betiko galdu ete dogu Arrietaren Itzulpena?

86.—BIZENDITAR ITZIAR

Azpeitiarra? Gezterik joan jaku.

Euskal alfabetatzean egin deu biera, andereño irakatsle.

Euskal idazlea be izan da. Euskal aldizkarietan gelditzen dira bere

idaz lanak.

Itxaropena eukan Bikenditar Itziar andereñoarengan euskal kulturak

etorkizunean: «Eta joan jaku...»

87.—IRITZI GARRATZA

Iritzi gogorra. Gogorra benetan, eta gogorra bakarrik ez. Garratza

be bai. Bai, garratza, oso garratza.

Gogortasunak ez nau arritzen. Garratasunak bai.

Nobel Sari baten bila ibili balitz be gaurko euskal literatura?

Ez dakit noraino eukiko dozun arrazoi, ezagutzen ez zaitudun adis-

kidea. Eukl eukigo dozun arrazoi bai, baiña ez dakit norainoko erroaio

ba, olekoak boteteko.

Eikerren artean berotu bai, bizitasun piska bat emotearren aieginduz

gera euskal kulturaren alde bier pixka bat egiten, baiña ez dot uste

inork burua galdu dogunik. Ondo dakigu gure gauroko euskal literatu-

raren txikitasuna, neurri apala. Baita badakigu gure gizaldiak emon da-

bozan euskal idazle batzuk neurri on bet irabazi dabeela doe. Ori be

badakigu, ete bildur barik esan geinke, zintzotasunik audienean esan be.

Eta inork eukl badau gure gerrate ostanen iritzi emoteille zorrotzik,

euskal literatura eukl dau bat. Egin behar onetarako oso jakintsua, ori

bai, baiña zorrotza be bai. Debaldeko lorarik bota ez dabena. Bat baiña

gehiago gili-gili egin eta ondo astinduta itzi daubena.

Alde gutzietan gertatzen dana gertatuko zan gure artean be: Don-

etikako iritzi-emoteilleak gure artean be, jakini. Alde gutzietan gertatzen

dan moduan, ezagutzen ez zaitudun adiskide maite.

88.—«TXABO»

Durangotartatzat neukan nik «Txabo» (Sabin). Santzurtzetarra zala jalo-

tez, diñoste Alfonso Soldevilla adiskidea. 1902 garren urteko iralla-

ren zortzigarren egunean jaloa. Santzurtzeko elizan bertan, bataiatua.

Durango «bizi izan zan» Maristen ikastetxean egin eban batxilleratua.

«Iruñak Bat» Hidroelectrica dalakoa enpleatu zan. Iberduero gero.

Euskal arma-arziale aundia izan zan, «Eta euskaltzalea».

Euskeraz idatzi ebanik ez dot uste.

«Euskeraz» aldizkarian idatzi eban, euskal mazarroizti edo heral-

dika galotaz. Garcia Carrañaren lankidea be izan zan El Solar Vasco

Navarro liburrakoa.

Durango in zan, orain bost urte dirala, 1965 garren urteko urriarren

bederatzigarren egunean.

ARRIURDIN

BAR · RESTAURANTE

bartolo

(Sabino Ceberio)

Amalketako, bizigarri ta
bazkari berezienak

Fermin Calbetón kaleko 38'an. Urrut. 11.743. DONOSTIA

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN · EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti-uk egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Ali-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander,
Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo-ra.

Carretera Gra. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonak: 50313 eta 59723

Apto. 1381

LIBURUAK

ESPAÑIKO OLERKARIAK EUSKERAZ

Beti bezala, liburu txukun eta erraz irakurtzekoan eskeiñia digu orain ere Etxeberriatar Juan Anjel-ek, bere lan berria: **ESPAÑIKO OLERKARIAK EUSKERAZ**.

OLERKARIAK EUSKERAZ.


Esta makala gure idazle eu, izkera batetik bestera edozer lan aldatzea, lan zaila da; baiña emen bezala, iz neurtuz egitea, gailenen lana gertatzen da.

Etxeberria adiskideak, era guztietako idazle ta olerkariak artu ta eskeratu egin ditu bertsoetan.

Bejondeiela bere lanagatik? Becu-ur, Campocamor, Guritzeko San Juan, Espronceda ta beste olerkari sail baten neurritzak or dituzte eus-keraz txukunetz jantziak.

Zenbagarrena ote du Etxeberri-atar Juan Anjel-ek bere liburuak? Poliki-poliki-poliki mordoak edo-rra ba du oraingoz. Alako batean, lan sakonago ta zabalagoa eskei-ko digu, nik uste. Ta orain arte egin dituan lan labor auek, lan aundirako zailduko dute. Leenballe- en eman deigula bere onenetik!

Onenetik!



(tercera antologia)

EUSKAL - IZENDEGI TA ARMARRIEN IZTEGIA

Oso kontuan artzoko ta omenez aipatzeko degu, bai egille ta apaiz dan Kerexetar Jaime Jaunak eta Retanaren «Gran Enciclopedia Vasca»-k ater duen liburu bikain au.

Leen ere erakutsiak emanak ditu Kerexeta Jaunak, langille purrkatu agertuz. Oraingo onetan dotore baino dotoreago dator liburu berria, larri gorritz eta giltza beltzet edertutako azalarekin, ertz eta edergarri urrez argituz dituala.

Ezan erraza orain arte liburu au arkitzea. Oraingo onekin gure eskutan gelditzen dira lau liburu eder, euskal-deiturak eta armariak zerrenda argian atereak. Ba ditut bertan, ogei ta bost mila inguru deitura eta aiei dagozkien armariak. Guziak erderaz ere emanak. Bakoitzen jatorrizko etxe, odol garbiko agiri ta guzti. Millaka asko, lau koloretan eskeiñiak; eta urrez, naiz zillarek argitua. Lau liburuok, beste eraskin bana dute beren azkenean. Auetan arkituko dezu Mondragoiko Esteban Garbaireren eta onenetik Karlos Gerrak bildutako «Ilustraciones Genealo- gicas de los Linajes Bascongados» izeneko liburuetan arkitzen diran XVI garren gizaaldiko aundizkien izen jatorriak.

Bejondeiela Elorriko apaiz langileari bere liburu bikain au eskeiñi digulako!

E'tar N.

BERTRAND RUSSELLEN AZKEN IRITZIAK

Elharralarek euskeraz emana. Editorial Herri-Gogoa. Banatzailea: Iñaki Beobide. Irakur sail. Donos- tia, 1970.

Euskal literatura bide estuetatik ateratzen hasi zaigu. Pozten gara. Lehen hainbat, edo lehen baino li- buru gehiago argitaratzen da al- de batetik; bestetik berriz, eremu zabalagoak, ideia unibertsalagoak ul- tzen hasi ote garenaz, gaude. Ordu zen. Hemen, gure Herrian soilik egosten diren ideiekin ezin gaitel- ke konformak; begiak kanpora zabal- du behar ditugu, eta alderdi horie- tan ezar berririk asmatzen delarik, ahal delarik, gure literaturan em- aten salatu behar dugu. Den dena sortzeko garra ez bagera, bestek egiten ditena kopiatu. Hori da!

Hil berri da Russel jakintsua. Zen- bait punturi buruz zukeen pentsa moldae ematen salatu da liburu be- rri hau. Puntu horiek arras interes- garriak dira. Aurkibideari begiratzea aski da: «zer da filosofia?», «erli- jioa?», «zer da zoriona?», «nazio- goa?», «H bonba?», «gizadiaren etorkizuna?», eta honelako beste zenbait pun- tuen erantzun zorrotzak. Geldera guz- tiol Russel-ek eman erantzunez, be- har bada ez bide gara guztiok kon- formatuko, baina, bestalde ere egia da, Russelen buru argia aski argi nabari dela.

Itzulpena ona da. Esku ona edo onak ezagun dira. Euskeraz txukuna, trinkoa, erraza. Hasi eta bukatu ar- te uzten ez dan liburu horietakoa. Zorionik beronenak itzultzaileari, eta hain sendo lanean hasi zaigun irak- ur sailari.

A. B.

BERTRAND RUSSELLEN AZKEN IRITZIAK



Berke sail

"Ardo ta ogi, Martxelin"

(MARCELINO, PAN Y VINO)

Jose Maria Sanchez-Silvaren «Marcelino pan y vino»-ren euskal itzulpen bat egin da orain dala gu- txi. Jose Maria Satrustegi, Urdiain- go bikarioak.

Hor nunbait, beste literaturetan agertzen diran obrarik onenak eus- keraz ematea komeni da. Sanchez- Silvarena ez da batere gutxieste-koa, bai liburu gisa eta bai peli- kula bezala, oso ezaguna egin baita.

Itzulpena ondo eginik dago. Ez da alferrik Euskaltzaindikol Bestal- de berriz, langille ona. «Principe de Vianan» eta «Pensamiento Nava- rron» maiz maiz idazten du. Ba di-

tu bi liburu: «Bordel Bertsularia» eta «Luzaldeko Kantiak».

Euskeraz batuan egin du itzulpena. Izan ere, Satrustegi Jauna, euske- ren batasunaren alde, bero bero baitago.

Euskeraren batasunaren billa da- biltzan guztiek irakurri behar lukete liburu hau, jaun honek puntu hone- tan egin duenaz jabetu ditezten.

Ikastoletan dabiltzan haurrentzat ere liburu egokia da. Norbaitentzat bai, eta ez ote du batez ere horien- tizat itzulpen hau egin?

Editorial Gomezek txukun atera du liburu. Lozano de Soteselek egin- dako imajina bat dakar lehen ho- rrialdetan; barruko imajinak, Loren- zo Gofik eginak dira.

JULIO CARO BAROJA TA NAFARROAZKO ENDA-AZTERPENA

«Ez naiz ezertaz azalpenik eginen ari; nik egin dudana, askakizun bat plazaratzea izan da».

«Degun zer bait kontuan artu dut: Nafarroa, alegia, bere kondaira askotariko izateaz, baiña ala ere, izate bateratuz».

—OO—

Ezaguna degu euskal gai arloan Julio Caro Baroja. Beti ere, noizean bein, ba du zer bait erakusgarri guretat lanbide orretan. Eta oraingoan ere, Nafarroako Aurrezki Kutxari eman berri dio, Nafarroazko enda-lan bat. Gizon au bere akademiko ta idazle bi- kaina izena ugalitzen eta sendotzen ari zaigu, asper- tzeke ekinen. Sail askotako billatzaile ta garbitzaile izanik, emen degu oraindik gure artean irakas-alki- rik ez duan sail ontan bere maiztza erakusten. Atzo luften arkitu nuan, eta orduantze aih zuzen ere, bere Berako ITZEA izeneko etxeruntz abiatzekotan zan.

Etzijon utsik; beti bezala, liburuaz eta ametsez astundua zerraman bere burua. Eta ni bere azken-lan ortaz zer bait jakiteko irrikitzen:

—Nafarroako Aurrezki Kutxari eskeiñi didan lan orrek makiñaz idatzitako mila ta irureun orrialde ditu. Guzia iru liburutan banatua agertuko da.

An ari zan, bere paperok esku artean gorde ezi- ñik... Azken-aldi ontan, Bidasoako Beran jaitutako gizon au, gure kondaira ta izateaz aztertzen ari da jo ta ke. Entzun dezalagun:

—Nere azterpen onetan, burutapen bitxieriek alde batera utzi ta bizirik dugun zer bait artu dut ikus- teko: Nafarroa, alegia. Ta Nafarro au, bere askota- rik izatearekin, baiña asieratik aurrenengo agirieta- n batasun egin bat bezala agertzen zaiguna. Orra nere lana... Nik ari:

—Ta kondaira aurreko denboretan, geografi zaleen aurrenengo agiri oiek baiño lehenago, zer?

—Endazale batentzat, etnologo batentzat, alegia, Kondaira aurreko gertaerak, oso labainak oi dira. Nik agiritz sendotutako gaitan eman det nere ardura ta astia. Ta agiri oietan, Nafarroaren izena alpatzen ari zantetik, gure lur au, Oiarzundik Muskarialaño, zer- bait batuz bezala ematen zaigu. Orduko ordertan: «tierra de los vascones» deitua agertzen baita.

—Nolako batasuna, ordea? Jatorrizkoa ala?

—Asiera aretan, bai. Nolabait banatuxea, ori bai. Ebro aldeko erribereko lurrak, orduan «ager Vasco- num» (euskal-alorrek) deitua, uriz osatuak eta angio jendeak erri barruetan bilduak agertzen zaizkigu. Ipar aldeko bizilagunak, ostera, mendia ta basoetan («salus Vasconum») izenez ezagutuak, oso banatuak ager- tzen dira. Beti ere, bitarikoak agertzen dira alde biak («salus» = basoak eta «ager» = sorok). Aldi batzuetan, erromatarren garaian-eta, erribera lurrak dira nagusi- goz, beste batzuetan, Erdi Aroan bezala, basoak nagusitzen dira.

—Ta geroa?

—Politika giroa, mediterranean aldeko jendea tarte- tzen delarik, baiña batasunean murgildua.

—Zure azter lana, antzinatean asten da. Ta bu- katu, noiz bukatzen da?

—Nere eña sei zatitan banatu dut: leenbiziko Edestia, antzinatea; urrengo arabeengandik lurra Es- kuratzeara; Erdi Aroko giroa; aginte zaarra erori on- dorengo Berpiztura ta gure aldikio Kondaira azke- nengo.

—Enda-idazle ala enda-zale?

—Ez naiz azalpenetan agortu; nere eginaz aska- bideak argitaz eman dut.

—Iritzi burruka sortuko du, ala ez?

—Ba ditek, baiña ez dut erabakitaz jotzen nere egin orri. Billaketan, askabideak sortzea da bearrera. Alako batean, lan borobilan bat sortzen da ta kito. Baiña besteren auste erabakirik sendotzea ez dut egoki danik uste. Beti ere, leen erabakia aztertu ta egiztu egin bear da.

—Zure lan orri, enda zale giron argitaduko da, beintzat.

—Ala da, noski. Gaur ugarri dotoz onelako lanak, ugari ta onak ala ere. Gai bilketa aberatsa degu. Baiña, agian, azter lan gelago komeni zaigu.



—Enda eskola bat ez al da sail ontan nagusitu? Claude Levi Strauss ote makxu?

—Baita ere, egitura aldeak oso sartuak ditugu. Baiña, nik uste, irakurleetan ez dirala asko ontaz jabetutakoak. Zer da «egitura» («estructura») jakin- tza? Zertuk ditu bere asmatzak? eta zaitzuzk bere akatsak? Au gutxiak dakite. Lan arin asko iristen dira alor onetan, baiña lan aundi ta nagusirik, ez, irakur dezagun, ta gero artaz sakondu gure billaketa. Bacon idazkariak zionez: irakurri bai, baiña gero azterteko; ez epaieetan agortzeko. Emen asko dira epai-zaleak. Ta gero bakoitzak bere kailoa, bere kapilla erlatzen du... Unibersidadetako «kailoa» oiei kontu! Burua erraz naesten baita egia ikusteko.

—Ta zu zeure lanean, nola ari izan zera: «kaila- to» oien bildurrak eraginda, ala «kalastxo» oietako ume egiaz?

—Oinarriz askoz zabalagoa da antropologoen lan- egitama, Kondairagilearena baiña. Ta Gizaiztiak (an- tropologiak, alegia), mesede aundia egin baitio kon- daira ikuspenari. Baiña lan arau bezala, kondairagileak oinpe sendoagoa du. Nik eskola bakoitzetik artzea merezi duana jasotzen dut.

—Ba duzu pelikularen batean ere tarteko lanen bat, ezta ala?

—Bai, pelikula orri, enda-girokoa da ta Diputazio- aren erreguz or ari gero, nere anaia Pio ta biok Orain arte, erromerikak, gertaerak, udaberri ta udaz- keneko egitekoak eta la negu osoak artuak ditugu. Uda aldia bakarrik gelditzen zaigu jasotzeko. Zine mintz orrek bi orduterd i raungo du. Koloretan artua da ta 35 milimetrotako zabalerakoa da. Mintza kome- ni bada, zatika eman al izango da; ta txandaka bota ditek lurralde bakoitzean. Urte onen azkene- rako, bukatua izango degu mintza.

—Zuk egin dezun lanaren osaketa bezelatsu al da pelikula orri?

—Osaketa baiño obeto, begiz jotzen dan enda azterpena dala, esalagu nuke nik. Esan didatenez, badira oraingoz pelikula orren aldadaketa eskatu duten Unibersidade batzuk.

Ontan, eskuak paperez lotuak baitzeuzkan, beribil baten zai gelditu da, Itzeazun abiatzeko. Julio Caro Barojaren izan dugun elkarriketaz au gozoa utzi digu.

Etxaniztar N.

Euskaltzaindiaren batzarrea

Joan den abenduko 30ean, goize- ko 11 etan, Euskaltzaindia Iruñean batzartu zen, Nafarroako Museoa. Batzarre arrunta izan zen, hila- bete oroz egin ohi duen hoietakoa.

E. Uranga Jaun, «Principe de Viana» elkargoaren buru denak, on- gi elorriko hitz batzuk zuzendu- zizkien batzarkidei, eta Principe de Vianan euskeraren alde egin- dituen lanetan parte handiagoa hartzeko eskatu zien.

Batzarreen, euskaltzainburu den Aita L. Villanase Jaunak txosten bat irakurri zuen euskeraz idatzi- ren arauak estudiantetako batzorde bat jarri behar dela esanez, eta batzorde hori osatuko dutenen izen- kan proposatuz.

Idazkari ordea den J. L. Lizundia

Jaunak beste txosten bat irakurri zuen, batzarre arruntak egiteko era edo ibildipe legea nola izango den adieraziaz, eta Euskaltzaindiaren sail ta batzorde guztien organi- grama erakutsiaz.

Gero euskaltzainburuak boste azalpen labor bat egin zuen, Eus- kaltzaindi barruan sail berri bat sortu behar dela esanez. Sail ho- nen egitekoa hau izango da: Eus- kaltzaindiari buruz berri zehatz eta zuzenak egunkari eta aldirakietara bialtzea. Hemendik aurrera ze- regin hau Euskaltzaindiaren zuzen- daritzak bere gain hartuko duela arabaki zen.

Batzarre hortan bertan «Andima ibinagabestia Saria» (milla dola- rreko saria), irabazle gertatu den

Aita Gillerme Larrañaga jesuitari eman zitzaion. Sari hau Caracasko «Euskeria Lagunen Elkarteak» ja- rria izan da, eta estrainako aldis Aita Larrañagari eman zaito «Lan- dare Jakintza» izena duen lana- rengatik. Euskaltzainburu Jaunak hitzaldi bero batetan Sari Emate- honek duen garrantzia eta irabaz- turen dohaiak eta mereziak ai- patu zituen, Aita Larrañaga Izadi- ko jakintzak euskeraz jartzen lan- gille isil eta neka- ezina izan bait da. Ondoren batzarreak aho batez laguntzaile izendatu zuen Aita Guil- lermo Larrañaga. Azkenik, batza- rreak telegrama bat Estaduaren Bu- ruzagi Jaunari bialtzea orabaki zuen, Burgosko haurpientzentzat erruki eske. (Euskaltzaindiko Pren- sa bulegoaren agiria).

legazpi

GABON EGBERRIAK

Urte arau neke izerdiz, lanaren mende, igaro ondoren, ospatu ditugu senitate batasun giro epelaren, Gabon Egberrri gozoak. Gabon eguzte atzetate, gaztxoak poze kantari; Jesus aurtoaren jaiotza irudi politik zeramatzekita, txanpon batzuen ametsean. Eta nor ez da amesleri, ain kutunak ditugun Egberrri jaiotza!

Sukaldearen epela, bai goxo izaten zaigula Gabonak iristean. Jandean bereziak ahal ordurako, gaur dia urbitzitan danok abesleri Aurto txikiaren inguru. Olotz xamurrak senitarerik urrun diran anai-arreben alde, ezbearean zorian epatuz. Oldozmen saminak gure barrena zulatzen zualarik anai arteen ditugun ainbat zorizaitze goratuta, pake, ta zorian betirik gabeko Egberrriak... ain zuen.

URTE ZAAR BERRIAK

Egunik egun urte luze, Egun oien zama tolestuz, arau azkenean iritzi. Bat geiago zerrendan. Bat gutxiago, atsegin printzaren danta zorizaitze naaspilurik darrenakun bitzita onatan.

Aztertu bat eman deogun barrenari. Zer obari atera diegu igarotzen urteari? Asieran artu giutuzen asmoak bete ote ditugu? Urte luze onetan izadiak gorakada, ala alde erantziz, beatekoari eman ote? Gaitz da gauro munduan, aurrez artutako erabakiari erantzun zuzen bat ematea. Egunean egunekoak ere, buru astuerik asko sortze bai digute.

Urtearen asieran, mundu obeeran itxaropenen gifa. Itxaropenen az eze ote zaigu saiestu urtearen azkeneko? Pake... zai izadiaren amets. Lo zorrian eze ote zaigun amets oiek urte? Zoriona use genduz. Ustearen erdia ustel, ez ote zaigu biurtu?

Mundu obe, pake, ta zorian, era mutirik etzaiatu sortu lurbera osan. Jesus Aurra apakiro eskaini zigun goimaitasuneko, pake, ta zorian iturrian ase bearko aurrera ere.

Gure itxaropen, amets, ta uste oiek lotu nahi baditugu, arduratu gaitzen ahal degun asmoak omenez, gorrotoaren ordex maitasuna eritziat, Samintasunak uxatu, ta poze giroa sortuz. Gobeitetasunak zapaldu, ta alaitasuna zabalduzu. Irmo joka dezagun, etsaien loharriak aisiaz, askatasunaren eremu zabalean, gure izkuntza, ta oitura zaarrak maitegiro gordetz.

ERREGE BEZPERA

Ospe aundikoa degu Legazpi, Guraso elkartek eratuta, errege bezperaz, sortaldeko iri errege oiek laguntzailen sailkain egiten duen errikako sarerra izkurgaria. Jostailu, ta sari ugazir beteak etortzen dira urte-oro.

Leenego eskeintza, erruki etxean daudenei egin ondoren, danbor, ta turuta soinu zoliz, auzo ta kaleak zeaz, arau... elduen artean sari ciek, oparo eskatuz.

Uste dut auxe dugula, denok zerbitu aurtziora biurtzen gaituen eguna.

Urte berri ugari ta mardula opatuaz, idazte, ta irakurle gutzioi agur biokorrak.

AN-ZAN

galdakano

ENE LANTEGITIK:

Bide bat baiño geiago dira, bide asko. Erri bat ezagutzeko gogorieraz gogorieran erantzunaz eta, bazezkoak beste batzuk euskararok egin gintzakezan aldian, gure izkuntza bardin gabea da, erri-jakintza, folklorer bitartez egin gintzakezanek. Eta zetan esan bez, askotaz errazagoak erri-jakintza bi dezanak aberastasun andia ta biakaita dugulako orretan euskararok. Etori barrik dira Ipar-Amerika aldetik Bilboko Olaeta balet taldekoak USAn iri ilabete eusko dantzak dantzatzen egin ondoren. Txango ortan izan diran dantzari gutziak, baiña, ezdira Bilbokoak bakarrik izan, beste erri batzuetakoak be badira ta, euren tartian guk itxi egin dugun erri ontako «Andra-Mari» dantza taldeko Altunarte Josu ta Maitatzen Jon-Andoni mu-

til euskaltzale kementsuak be bai. Gabon aurreko eguneari etxeratu ziran, baiña, orain arte ez dugu erakurri itxi egiteko erarik; ara eura erak zer dirauskuen.

—Bilbitz luzea egin dozuena Ipar Amerikatik, zelangua izan da Olaeta balet taldearen txango iri?

—Ona ta pozgarria, baiña, gutzi gogorra.

—Zergatik?

—Leenen, batetik bestera aldatutako kilometro asko egin bear izan duguzalako, berrogei milatik gora, batzuk egazkinean baiña, geinak jende-berebilleen alde, gero ia iruogei ta bederati (69) dantzaketa egin duguz USA-ko estadiurk gienetan, eta izardia ondo ateraten dala barritz.

—Zelan orrenbeste izardi, ezta orrenbeste izango?

—Ara, Ipar-Amerikarok ondo ordainduten dabe, esan liteke diruak ezteutsela ardurarik emoten, baiña, dantza ta jolasak-be kementsuak nai-dabez, izardiz dirua irazten diranak.

—Zelangoa arrera dauke eusko dantzak Ipar-Amerika ortan?

—Ezin obee; eusko arazo gutziak dira berri ondo ikusial, eta dantzak, zetan esanbeaz, zenbat eta kementsuagok, bizkorragok ainbat atsegiago dira bertan. Zelango txalotsak entzun degubazan bertan!

Euskarerrian be entzungo ziralta uste genduan batzuetan da, obe orratara izan bazan, ia lozorroan dagoen euskarat asko itxarutena bada, euskararra izatea zer dan ludian jakiteko.

—Ordian eusko baleta ondo ikusten da, atsegin da Amerika aldean?

—Bat benetan, baiña, gure uestez ainbat atsegiago izango litzake amerikarentzat. «Andra-Mari» edo beste oloko erri-dantza, ezpatadantza, makil-dantza ta abar da abar dantzatzen daben talde kementsuak, bat leen esan dugunaz, dantza kementsuak, bizkorak eta gogorak naiago dabezalako eura.

—Ia ba, «Andra-Mari»-koak edo beste orretako talde bat gertutzen dan lurralde artara joateko.

—Egingo litzake baiña, diru asko bea rda orretarako.

Orretara esango dugu Josu eta Jon Andoni, eta zoriontasun Euskarlerria ezagutuagoko izaten aalengiduen zaretan eusko gazteok.

JAIOETA:

Urtarrilaren 12gn. euki eben alabak, bikiak bat, familiako bigarren. Egitarat Joseba-Koldo ta Intxauratzen Miren-Karmela senar-amazte gazte euskaltzaleak.

Osasuntsu izango aal zare Joseba Koldo, zeu lako abots zolliko seme alabak azi ta eziteko. Zorionak.

EZBEAR BAT:

Urtarril onen 12-gn. ezbeaz tamagorri bat jazo zan Bengoetxeo auzunari, bertotik zeaz egiten dabilzan Bilbotik Bahobiarako berebide zabalean, lanean dabilzala lru jauskera batek azpian zapaldu eban langille talde bat eta, euraeriko lru il da beste bat txarto zaurituta geratu zan, bearpada ilteko eran.

Ori jazozen da sarritan, langileak beren odolakin ordaindu bear egin-tza on andiak! Goian Begoz.

Basa-Jaun

AURRA ZAINTEKO

emakume jator bat behar degu egunero, goizeko bederatzietatik ordubateraino, Donostian. Deitu Z. ARGUARA

baxtan

Urtea igaro da eta bat gehiago gure gailu, negua, udaberria, uda eta udazken leialko irela. Aztertu ditugun urtearen barnean gure mintzaren alde eginikako lanak eta egertu ditugun baztandaren eginikunak, euskal kulturari dagozkionak bakarrik eta ez ordea folklorer ta bertze jostetarik. Zerbait egin dala? Bai egia, eta gehiago ere egin daitekeela? Baita ere. Zaleztasuna ta euskal kontzientzia gure euskaldun jendearen artean exkaxa

balin bada, huri piztarazten badago nahiko lan gure eskualdean.

Igaro den urte, hontan hemen egin direnatarik haundiena dudarik gabe ikastola izan dugu. Ikastola hau Nafarroako Diputazioak «Institucion Principe de Viana» Batasunaren babesarean dago eta 35 urteko haurrentzat egina dago, hortara 28 haur joaten direlarik eta anderoño baztandarra irakasle dutela. Ikastola honekin arras kontent gara eta eman dugun urrats horrek aunitz balio du. Ikastolako Aintzindariak asmo onak dituzte eta datorren kursoarako Ikastolako gelak haunditu eta bi anderoño gehiago

akari, guraso aunitz bat-dire beren haurrak ikastolara igorri nahi dituztenak. Zorionak Elizondoko Ikastolako Buruzagiei.

Joan den urtean bezala aurtan ere izan dugu haur baztandaren arteko idatz-sariketa: bere hartan 71 idazle tipu parte hartu zutelarik. Orai Egberritan ere eta Nafarroako Aurrezki Kutxak antolatutik berze idatz sariketa bat izan dugu, hontan 25 haur sartu direla. Bi sariketa hauek izan dute arrakasta, eta idazle tipu hoiak lan politik erakutsi dituzte.

Euskal irakurgailu ere ari gara hedatzeko «Principe de Viana» Nafarroako Diputazioak euskal-aldizkaria euskaldun familetan banatuz. Beti ere lehenago eskuarazko idazkiak egundaino irakurtzen etziztuztenak orai ari dira eta hori ere bada zerbitu.

Bertsolariak eta euskal kantari berriak ere ari izan zaizkigu, Elizbetan, Sunbilian, Anizan eta Zubietan eta erran beharrik etzago hoiak ekialdira denen gogokoa eta gutxi atsegiago izandu zela.

Urtearen barnean gure eskualdean gure mintzara goratzeko egin diran lanetaz mintzat gara, zenbait xehetasun agertu dugula.

Urte zaharra joan da eta orain berrian sartu gara. Zer ekarriko ote dauku urte berri honek? Guk zer nahi genduko? Beti ere zoriona eta bakaera gure Euskal-Herri maitaerentzat.

Urte berri berri zer dakarazu berri Uraren gaian bakia ta osasuna.

Jurtex Urtetx!

M. IZETA

pasai donibane

ESKUPEKOA

Eta ez nolanhikoa! Aranburu Martin Jaunak, Irungo Etxegileak, zaguinak, 10.000 m³ (hamar mila metro) eman ditu, Olazabal mendian, «Escuela de Hosteleria» delako bat eraiki dezaten.

Guk, Pasai bailarran, halako SUERTEA izango baldin bagendu, ez Escuela de Hosteleria bat egiteko, euskaltza Lizeo edo bigarren mailako ikastola bat izateko baizik, azkeneko bolara luze hontan ditugun buru hauste, kezka eta ezin-egonak, lasaituko lirake.

Penagarria benetan, gure euskal kultura, gure hizkuntza aurrera ateratzeko, Israeldarrak bezela, zeruko «mana» hori noiz etorriko ote dan itxaroteta eta «mana» (euskelekoak, bigarren mailako ikastola ete abar) hori noiz ez datorrela somatzea, penagarriago.

Ez al du inork, Pasai bailarran, hain behar beharrezko dugu euskal Lizeo bat egiteko soroak eskainiz, eskua luzatuko, Irungo jaun horrek egin duen bezela?

SUALDI

Azkeneko bolara hauetan, Pasai bailarran, bi sualdi izan ditugu. Bat Jaizkibel mendian, pinu ugari kis-kaldiaz; bestea, joan dan astean, Pasai S. Pedrok muellean gertatua.

Ojeda etxeko «Costa Cantabrica» delako baporean hain zan sua eta hemendik muellera zabaldu zan. Izan ere, muellera, zatar kolpetuz, gas-oil, olio eta abarrek zinkindua egoten baila da eta sua azkar hedatu zan zinkinkeria hoiel esker.

Sua, arrala deskargatzen dan leku hoielako batera iritxi zan, ke mordo izugarria soraraziz. Bakelotako bapore gehienek gas-oil-ek beteak zaudela ta Terrano-baruntz abiatzeko prest, alde egin zuten lotuak zeuden lekutik suak harappa ez zitizaten.

Ezbeharrik ez zan gertatu, «Junta de Obras» delako su-izaltzariek (bomberoek), trebetasun izugarritz, sailtu eta ahalaginduz ziralako.

TERRANOBARUNTZ

Terranoa aldera joaten diran

zenbait bapore abiatu da. Bizimodura latza gizon hauena, ez lanagatik (zenbait egunetan, arrarrik ez dagoela-ta, patxara ederrean egoten dira, berak aitortzen dutenez), hainbeste hilaibete igaro behar dutelako baizik.

Dana-dala, arrantza eta eguraldi onak izan ditzatela!

JAIOETA

Pako Prietoren emaztea dan, M. Carmen Gomezek, mutiko sendo bat izan du. Gure zorion beroena gurasoei!

HERIOTZA

Galxoaldi luze baten ondoren, Jaunak bereganatu du Esteibar tar Manuela (Hernandorenaren alarguna).

Bere seme alabei gure samirik beroena

Inalurretak

euskaldunak bartzelonan

AURTENGO LEEN EUSKAL MEZA

Salba gaitzazu;

Zetoz, Jauna;

agertu zure

biotz ona.

Poz eguna gaur,

poz eguna;

urbi baltegu

gure Jauna.

Asierako GABON-KANTA zerukoi oiek organu solhuaz gozoro abestuz ospatu zuten Bartzelonako euskaldun euskaltzalek, urtarilaren 3an, aurtan urteko leen euskal meza ederra.

Aragon kaleko 284 garren zenbakian dagoen monjeen «Lestonac» deritzan eliztxoan, astero izaten dute euskal meza, emen bizi diran euskaldunak.

Gizon, emakume, gazte ta zaar, jendetza polita zan apaturiko euskal meza artan; baiña gelen aritu ginduzena, ainbeste monja euskaldun ikustea izan zan, beren artean: euskal meza entzuleen artean.

Bartzelonako ainbat konbentutan sakabanaturik bizi diran monjak ziran ain atsegin auzid meza artan ikusi gendugunak; izandiz arabarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta nafar-tarrak diranak.

Meza sontua, Aita Bitor karmeldarrak esan zuan, eta egunari zengokion Itzaldia ere, ber berak egin zuan. Itzaldi mamitsu ta entzungu-ria, benetan. Une artan, Euskalerriko elizen batetan geundela lru-ditu zitzaigun. Euskaldunak, nun Euskalerria, an esan dezagun.

Mezaren bukaeran, beste bi abesti auek abestu ziran:

Aurtxo bat zaigu

jaio guri.

Bera munduko

Agintari.

Argi berri bat

geur guregana,

jaio bait zaigu

Jaungoiko Jauna.

Meza ondorean, eliz atarian, atsegin zitzaigun «ZERUKO ARGIA»-ren irakurle batzukin izketatzea. Batez ere, Aita Bitor karmeldar fraile txiki maitagarriekin elkar izketa xiki-kingarri bat eudukitzea.

Ona, ba, emen, gure arteko elkar izketaren berri:

—Nungoa zaitugu, Aita Bitor, Gi-putza? —galdetu genioneen:

—Bai, Ezkuriatzakoa; «Apotzaga» euzokoa —erantzun zigun.

—Noiztik zaude emen?

—Aita Intxauri frantziskotarra, leengo euskal meza emallae, bere Kontseiluko karmeldar egon?

—Emengo euskaldun euskaltzale-oen gogoz Euskalerriko etorria, etze?

—Bai, alaxe da; eta pozik...

—Noiz, nun egin ziñan apaiz, eta nun eman zenduen leen-meza?

—Markinako gure Kontseiluan egin nintzan apaiz, 1941 garren urtean, eta leenengo meza, zortzi egun barru, Eibarren eman nuan, eta beste zortzi egun barru: nere jaioterri maila Eskorizan poz aundiz.

—Geroztik, Bartzelonartu bitartean, nungo Konbentutan egon?

—Nafarroako Villafrañcan, Eibarren, Donostian, Santanderen, eta orain... orra —nork esan?— orain emen, Bartzelonan, emengo eus-

kaldunen artean, poz-pozik...

—Euskaldun asko al dago Bartzelonan?

—Bai, baiña, asko ta asko ez dira euskal mezatara etortzen, gu-

re Elizatxo urrutit egiten zalelako. Zabalera aundikoa bait da Bartzelona. Ta gainera, etzazula uste, «Zelata», fededunak diranik emen bizi diran euskaldun guziak; baiña, alare, etortzen dira gure mezatara, batzuk, euskera entzuteagatik.

—Nola ikusten dezu emengo jendea sinismen aldetik?

—Otz; oso otz. Ez da emengo jendea euskalduna bezin beroa alde ortatik.

—Bukatzeko, Aita Bitor: ze esan-gu zenieke «ZERUKO ARGIA»-ren irakurleei?

—AUXE: Bartzelonara detozenean, gure euskal mezatara etortzeko.

ZELETA

eibar

—Joan zan asteko aginduari jarraituz jakin dezagun Pierre Larzabal Azkainen jaiola zela 1915 urtean, maiatzaren 7an, eta Uztartitzen eta Balonan ikasketak egin ondoren 1939 urtean apaiztu zitzaizkila. Apaiztuz gero hamabi urtez Hazparne herrian bikarlotatzen ziran. Artean, Igarren, Gerra Nagusia zela eta, komandante izatera iritxi zan, baita Alemania aldean «presoner» ibilia ere.

Bakea eraberriturik eta berriro ere Hazparneratuta, antzerki saio asko egin zuen bertako gazte taldeekin. Bereak dira antzerki lan zenbait, alegia, «Bordaxuri», «Semper gertatua», «Iru ziren», «Hila esposatu», «Herriko bozak edo nor alkatte», «Auspoa Liburutegiak argitaratuak», «Elxahun», «Portu xoko», «Urxilotu horiek», «Basabeltz» eta era honetan gutienez beste hogeita bat lantxo «Escritores Euskericos» dalakoan irakur dezake-gunez.

Horrez gainera, baditu edozein bat lan, artikulua gisa, «Euskalduna», «Herria», «Gure Herria», «Olotari», «Embatza», «Aintzina» eta beste zenbait aldizkarietan sakabanatutak. Idazlanetan, bere izen abizenak ezizik, «Kostatarra», «Al-daiko», eta «Haritzgan» izenordeak erabili ohi ditu.

Hazparraren hamabi urtetan bizi ondoren, Zokoako lehen erretoe izendatua izan zan, eta berak moldatu behar izan zituen eliza berria eta apaiz etxea, baita «bezeri» berria lotu eta parrokia berriak zekarziten gainontzeko arazoak ere. Zokoa arantzaletan herria da, eta lan mota honetara larzabal behar izan zituen Aita Zuzen-balek bere ahalagiri gutziak. Gainera, Zokoa milaren bat biztanle-ostean dutelarik, ez gura zitzaizkion jaiak, euskaldunak ezizik, frantsesak, britainarrak, espainarrak eta bertan bait dira. Baditu bada Aita Larzabalek nahiko burusaste, eta era berean eukitrik irizteke non mundua eza-gutu.

Aita Larzabal Euskaltzaina dugu, euskaltzain oso oso hain zuen, eta gizon zuen, apaiz langile eta euskaltzale amorratu bezala erabat ezaguna da Ipar Euskalerrian, gure artean Villasant eta Lekunua izan daitezkeen baino ezagunagoak behar bada, bakoitza bere hildu onuragarririk, Larzabal gure bi jaun horiek baino herri-koigara dakeke eta.

—Inork nahi balu «Euskeralagunak» deritzan «elkartearen hapi-detza» egin, idaz bitza paper puska batetan bere izen abizenak eta bi-zilekua eta bidal beza Ikastolara; ze kuota ordainduko duen (gut-tien huleko 25,— pta. dela jakin-ik) eta zein eratan ordaindu nahi duen, alegia, banko, aurrezki kutxa ala kobradore bitartez, eta hilerro, hiru-hilabetero, sei-hilabete-ro ala urtero, noizero ordaindu nahi duen esanaz.

Jakin zane, honela esan bait ditade, elkartearantz hobe litzake elkartaren ordaintea urtean behin edo alai danik eperik gutti-entetan egitea, eta banko edo aurrezki kutxaren baten bitartez ahal bada ere.

—Urtarrila, otsaila, martxoa, ap-ri-la, maiatza, ekaina, uztaila, abes-tua, iraila, urria, azarora eta aben-dua. Hona hemen urteko hamabi hilabeteak, zer dala eta? Ba... u-rezki Kutxa Prohibitzaileko muti-lerderrak ikas ditzaten. «Euskaler-riagunak» dalakoaren kutak kobratu behar zituztela eta ez zidaten ba-da galdetu eta «abandutik» ala «ur-tariletik» hasi behar zuten! Eta gutziak euskaldunak izanik!!

Amatino

IZKIRIMIRIAK

"Mundrau"tar "mundrau"tar bat...

Bixente A. mundrautar mundrautar bat da, gutxi batzuk "geldike-tan" diran orietakoa ta "ez dot pentsetan" emen bera ta bere ixillekoa arrotu baditzaat orregatik arramuskada aundirik jasoko dedanik; geien bat ere, bera begira bera begira, gizon zaparrote bat da, irripartxo bat egin eta aurrera.

Blok joaten gera Mondragoeko "Centro Asistencial"era, ta neronen aurreko txanda dualarik minutu gutxi batzuk itxoiti bear izaten dizkio.

Bere "jersey"ta jantzi bitartean beti esaten izan dit irripartxo batez... "Oñi (orain) "Kanpanzar"era bizikletan"... Nik leenengotan benetan artzen izan diot eta bai makinatxo bat inbiri igaro ere"... Iño, niotsan neronen buruari, iño, ori suertea Bixenterena... nora ta Kanpanzar-rrera bizikletan"...

Egia esan, nik "motorako" zaletasun gelago det, baiña orain zati batean "motoan" jarriker ez daukadalako bizikleta ere...


Esan bezela sarri egoten izan naiz inbiritz... "Oinezko bajeioek Bi-xente kamifero-errien gora"... Eta Bixentek eguneroko kanta... "Oñi Kanpanzarrrera bizikletan"... Lastar nerau asi nintzian aurrea artuta galde egiten... "Oñi Kanpanzarrrera bizikletan, Bixente?... "Bai, erant-zuten izan dit irripartxo batez, amarretakue eitten"...

Beñola zertxobait beranduago iritxi nintzan, eta ate zirrztutik an ikusten det "Bixentiori" "ringi-ranga" ipurerainka-ipure-rainka, gizon motz bat da "B. H" bizikleta batean, obeto esateko "B. H" "tximindue" batean, txirringa bakarreko "txirindue" batean "ringi-ranga" "ringi-ranga" jo ta egurra, ta jakiña, beti leku berean...

Ez al zaitzue telebisiolan orrelako "B. H" "txirinduen" propaganda ikustea egokitu? Leenengo neska gazte bat agertzen da ta gero, baez-pada, mutil bat; "baezpada" diot, gizonetxoak ez bait dira, neska gaz-teari begira, konturatu ere egiten zer bizikleta jenero modu dan ura, ala txirringa bakarra ala "norleko" tren, alegia etxerako moduko dala (neska gaztea ez, bizikleta)...

Orela ba, gutxi arriturik esaten diot "Bixentiori"... "Zein Bixente? Orreik ziran zure bizikleta ibiltiok?... Jaregin manibelari ta atzeruntz begira esaten dit, esango nuke irripart tristetxo batez... "ZER GURU'ZU BA, TXOMIN?... ILUSINUE, ILUSINOTXUE!"...

TXOMIN



Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA
ERREENTERI

ONDO BADABILL
Otsein DA



ECHABE

ETXABE'REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 21

ZARAUTZ



Gizon diru zale ta zeken bat erreka sakonera jausi zan beñola.

Andik bakarrik urteteta ezina zala ikusi ebanean, oiuka asi zan, estu ta larri.

Inguru aretatik ebillan jaun bat, diarrak entzulean, urreratu zan, eta gizon bat uretan jaustia ikusirik...

—Emon zure eskua, esan cutson, andik ataraten lagundu guraz.

Baiña gizona, esan dogunez, gutxi zekena zan, eta ez eban iñoiz ezer emon gura izaten. ta "eskua emoteko" entzun ebanean, beso luratu bearrean, beerago jatsi eban. Jaun arek ondo ezagutzen eban zekena-ren geixoa, ta beingoan asmau eban zer egin.

—Artu nire eskua, esan cutson bigarrenean, eta orduan bai, arin luzatu eban diruzale arek bere besoa, jaunaren eskua artzeko.

ABELETXE

ETXABE - ANDRE: ILAUN ARAZI ZURE
ABDOEN ONOKO JABOI ONKEN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinan egiten ba'den


ATOMIZABO LAGARTO — jabea erabilti beti
Eskuz ba'zabite, LAGARTO — jabea bear den erori

JABON LAGARTO, garbiketarako jabe bakarra
Etxeko-andrearentzat neakamerik egokiena,

JABON LAGARTO!

iii EGUNDOKO ESKEINTZA!!!

“TRESILLOREN
SALMENTA
IKUSGARRIA”



Ikaragarritzko prezio beherapenak

10% 15% 25%

TRESILLOAK, SOFA-OHEAK, LO-GELAK, EGON-LEKUAK

6 ARRIGARRIZKO EGON-LEKU OSOAK 6
Edo bere ordezkorakoak zozten dira.

ZOKETA BEREZIAREN

Txartelak utsean ematen dira.

¡ENTZUN, PROBINTZIKOAK!

Erri guzietara montaketa eta eramateak utsean.

Joan-etorriak Donostira bi pertsonentzat ordain-duak

Diru-obetzeak probintziko guztientzat

AMUEBLADORA **COMERCIAL HISPANIA**

DONOSTIA'N, Moraza, 3 eta 14

IRUN'EN, San Marcial, 12

Eliz berri baten hilla Gaitzen osakia: Sinodoa

Gipuzkako Elizari begira nago. Zerbait, garbi asko esan dezaket; apaizak hilla puskatan, oso zatituta, bakoitza bere aldetik ditugula. Orregetatik jota daudela. Apaizak bai, gaixo ditugu.

Esan dezakegu gutxienez bi zatitan puskatuta arkitzen degula gure Eliza ta gauza gutxiengoi oinarriak auzuek dirala; auzuek bategi aundi naia, itxura; bestetik auzuek lana, oheribidea. Bi alderdi ditugu, gauza bat berdin darabilkete, maitzerkia ugari.

Bi zati oietan, jokabideak ez dira garbiak. Nor nor baita egiago agertu nai, nai orrengatik inguruan naaste berraste aundia utzi. Nor bere nortasuna agertze orrek gaitzen ditu bazterak. Bere burua aurretik agertze orrek, legezaren oinarria bezela jartzen du.

Gauza guztiak, "lagunen artean" konpondu bear. Lagun elkarie oietati alde, ez dago, ezer esiterik.

Norberaren ta lagunen irizirik bakarrik ezagutu nai dira. Besteak, ez balira bezela artzen dituzte. Batzuk, jaun ta jabe, nagusi ta epaile izateko jaiokak izaki; beste guztiak belauniko, isilik, ankapean egoteko.

Batzuk, nai bestek bizi diranik ere, ez dute jakin nai. Inoiz jabe ez balira bezela auzutuzte dituzte. Orreka apal mailak osatu dizekete. Maila oiek desberdinak agertzen zaizkigu. Batzuk agertzen bizi bear, besteak mutututa. Ondo ikusiak daudenak, betik zuri, borobil gelditzen dira.

Agintaritzea oso urrutu, axal giroan, beste mundu batean balago bezela agertzen zaigu. Danen lokarri, arrasa ta bizkar ezur izan bearrean, bere gisa ibilli bear. Orduan jakina aizeak ostoak astintzen dituzen modura, besteak aizean jira-bira.

Nola ez aipatu, gure artean apaiz egitekaririk utzte? Asko dira urtero dijoazkigunak. Erreta, markatuta dijoazte geienak. Jokabide garbi guzti ikusirik, esku zabalak bear ziran tokian ez dituzte arkitu ta joan egin dira. Orreka utzi bear al ditugu? Gure Eliza, oien bearrik gabe al dago? Gauzak orreka utzte al da Kristoren naia betetzea?

Gaifera esan dezakegu garbi asko, gure Eliza arrot klerikala degula. Gauza geienak, apaizen eskutan, ta laikokak nua ta zertarako? Eliza erresposabilitatua de geienak apaizen eskutan daude. Orduan nua gelditzen zaigu Jainkoaren Erria? Nun dago kristauren erregetza?

Garbi ikusten deguna auxe da: oraindik Espainiako Elizaren antzera Barroko Elizari bizi gerala; itxura aldetik, egiazko triumfalismoa; barrenean, dana zatituta, al daretxo asko, geiegi.

Jaiotzeko dago bear dan bezela gure artean, konzilioko Eliza. Erroman egin dana gure artean egin bear oraindik. Konzilioan erabaki nagusiak artuaz Eliza Bat agertu zaigu. An leendabiz, danen artean elkarriketa sortu zan. Oso zatituta ta miranak, jokabide berditutara iritsi ziran. Gure artean, gauza berditutak egitera beartuak gaud. Ortarako, SINODO bat degu bearreko. Leendabiz danak elkartu, irizirik danen aurrean azaldu ta danen artean erabakiak artu. Erroman egin dana, gure artean berritu; Barrokierik utzi ta Eliza osatu. Ori dana, denon lana da. Zer egin dezake gotzaiak garbi, apaizak eta laikorik gabe? Denok batuta Eliza gura ta Elizaren ipiluta SINODUA degu, ez itxurazko SINODUA, egiazkoa baizik.

Gipuzkoako Eliz barrutia jalo dan ezkerotik SINODURIK gabe gaur.

de ta bear bearreko degu. Ortarako arrazoi asko dugu.

Izandutako gotzaiak, gauza asko txintxilik utzi dute. Batek zerbait egin badu ere, besteak auzututa gelditu. Batek txintxilik utzi dituenak, besteak ez ikusi eta ezin aurrera eramane. Gai batzuetan ori gertatu izandu da. Ala erabaki nagusi batzuk artu izandu dira, kristau guzter izardi ugari eta lan astunak kostatu izandu zaizkate; andik urte batzuetara, ezer gutxiako balio zutenak. Adibidez, Apaiztegi edo Seminarioekin gertatu dana. Ondeko zegoen Gaitezko Apaiztegia, naikoa ere, Baifan berria bear Donostian. Zertarako egin zan, ba aldaikigu? Ikusi orain nua ta zertarako gelditu zaigun etxe aundi ura? Ara nua gelditu dan gaur gizon baten erabakia? Denok ikusi bear degun gauzetan, denok azaldu bear degula gure irizirik ta ortarako nai ta naiez, SINODUA bear.

Gaur ere Instituto Pastoral bat bear begu, aurretik asko penatu berru dago. Orreko lan bat aurrera eramateko, alderdi asko neurtu bear. Ezin ditzeko ikaragarriko gaitzak egin andik, urte batzuetara denak txintxilik geldituko. Pastoral Instituto bat egitekoan, leenengo pausoa eman bearra dana, inguruko parrokietan pastoral edo elizartantza jator bat egitea da. Baifia ba al degu ori gure parrokietan? Lupa bat bear ori biltzeko. Orduan nola bidali parrokia oietara Instituto Pastoralak ikasleak? Aurretik parrokial berritu bear dira. Eta aldaiketa guzti oiek aurrera eramateko, SINODO jator baten bearra izaki.

Gozaiak gaifera joan egiten zaizkigu, Eliza da gelditzen dena. Lan sakon bat egiteko erabaki nagusiak bear eta sakonek SINO-DOAN artutakoak dira. Gotzaiak, gauzak, argal edo azkar martxan jartzen dituzte baifia gero joan egiten dira. Lana ondo egiteko gauzak oinarrituak eta zuzpurtuak bear eta ortarako egokiena SINODUA.

Egia da, konzilioaren ondorean autapen edo instituzio berriak jaiotzeko. Pastoral aldetik komisiogari dugu. Oso gutxiako dira aurretik landueak, sendo ta garbi ez diranean azaltzen. Aurretik bideak ondo oinarrituak bear. Ortarako lan giroari begintuz ta konzilioaren argia aurretik bideak nola urratu denen artean ikusi bear. Ez da naikoa komisiok osatzea. Aurretik lana garbi ez danen azaltzen, elbarri jaiotzen zaizkigu. Orixe gertatzen zaigu gaurko egunean. Batzuei konzilioa etzalea jalarik izandu ta gaur konzilio komisiotan daude. Ori elbarri bat Olinpiadara bidaltzea bezelaxe da. Ez al da penagarria? Gauzak garbi, denen artean ikusteko, egiazko SINODO jator bat bear.

Gaifera esan dezakegu garbi asko, Elizaren lege zaarak, erain berritza dijoaztenak, amar urte-tatik berru SINODEA egitea agintzen duela. Ikusi 355 zenbakia. Lege zaar au oso atzeratuta dago gauza askotan, baifia oiei eusten zien. SINODUAREN agindua berri oso jatorra izan arren, au aaz-tuta zeukaten. Gure Eliza, agintar-ien aldetik, lege gizonex beteaz izan arren, agindu au ezagutu ez balute bezela, joan zaizkigu, ikusten denez. Donostiako Elizbarrutia ba du 20 urtetako bizitza gutxienez eta ez degu oraindik SINODO antzeko gauzarik ikusi.

Gaurko giroan SINODOAREN bearra da, ori garbi garbi azaltzen zaigu. Eliza osak Erroman egin duena, geuk gure artean osatu bear. Ori egin arte ez gero konzilio Eliz-berrian sartuak izanen.

Gure artean, denen artean, leendabiz, azterketa sakon bat egin bearra dago, aurrez aurre. Gero,

Mons, Ndongmo auzipean Kamerunen

Magnetofon-zinta bat, salabide bakarra. Gotzaiaren teknika-aituak, aren diru egoera argitzen du. Mundu guziko Juristen Batzordea auzira etortzeko. Arraza arteko nausieria susmoa tartean?

—OO—
Goztai batek, bere salatu aukitit, dardara aundia eragin dio munduari egun auelan. Nkongsembako gotzai dan monseñor Ndongmo, Ernesto Ouandie ta beste 75 salatu Auzitegi militar baten aurrean agertu dira. Abenduaren 26-an asiera eman zion auziak Kamerun-go iri-buru dan Yaunde-n.

Beren kargu duten salapena, Ahidjo, Estaduko leendakariaren aurkako artu eman bat dute Leendik emanak dira monseñor Ndongmo-ren aurkako salapen ta auzibideak. Bigarren aldiz dator beraz, auzi aukira. Ba da alde auelan politika alderdi bat (Kamerun-go errian batasuna); onekin batera Estaduaren kontra jokatu duala, egotzen die gotzaiari. Partidu politiko, ori debekatu ta dago.

Arazo onen buru bezela, Ernesto Ouandie, Kamerun-go errian Batasuneko "kondaira-buru" dan gizona degu. Onak ere eriotz-epalapean eriotzeko arriskua du. Salapenetan, erailketak, su-emeak, borondatezko ondamedendi galerak, giza ikusutazeak, emagaitzeak eta lapurkeriak aipatzen dira.

AUZIA ATZERATUA

Abenduaren 21-erako izendatua zegoen auzia. Baifia il beraren 26-erako atzeratua izan zan, beste letradu batzuek auzipea atzeratu al izan zezaten. Auzitegiak Kamerun-go ta Frantziako lege gizonen paparak miazteko aukera eskeini die. Onela, ango Gubernuak auzi ontarako lege gizonak jakifaren gaitzen jarri nai ditu, epaibidea ta darabilzetan lanak, ikertzeko aukera emanaz. Onela ere, Kamerun eta Frantziako lege gizonen artean erabakitako eskubideak gordela daudela adierazi nai dute. Onelakoetan, izan ere, errialde bietako lege gizonak, eskubide berdiez jantziak izan ziran.

IRITZI DESBERDINAK

Auzi onen inguru, politika arazoetan gertatu oi denez, oso etenak daude. "Le Monde", egun auelan aipatu ditu alde bateko ta bestekeen irizirik. Auzi artean, leen Mons. Ndongmo-ren "teknika-aitua" izan zan Yves erbeek-en eskutit luzea dakar. Beste kontu batzuen artean au dio:

"Monseñor Ndongmo-ren kontrako salapenak, orain arte, "sumotan" eta nolabait atzeratutako erantzunetan bakarrik oinarrituak daude. Ortarako erabilirik bideak, magnetofonoz eta beste ala okalo nausierien bidez irizirik izan dira. Eragabekoak izan baitira, irudimen utseko esankizunak (arma gordailu ametselako bat billa dala-ta), "Mungo-Plastique"n arkitu omen dute gordailu dalako ori, ta elkarie orren zuzendari izana bainaz denboraldi batean. Emendik atera ditte, beste salapenak ere, alako alako izango dirala".

Ondoren Verbeek jaunak, gotzaiak erabilirik dituan diruen berri eman du. Auk Batasunotik artuak izan ziran, nua bait, ta parrokia ta eskoletan erailik izan ziran, eta jakifeko Diru Etetan gordeak egon dira. Batutakoa, zati bat zapostolutzako xauketak ordaintzen erabilirik izan da, ta beste zatiak, diru arremanak burutzeko. Eginkizun auker apaz eta gizon aitu atzen eskutan egon dira, ta Ndongmo-ren ekialde ezagunak eta garbiak izan dira beti. Oietan eta politikari artu dituen neurrien artean, leize zabal eta sakona dago. Egia da, bai, Kamerungo Eliz Batzaren jokaera Ndongmo-ren aibeste dirubide-ekifien aurrean, isilik egoteko izan dala; baifia politikari ork atera dituen lokarriak oso bestelakoak izan dira. Verbeek jaunak, auzi militar ori "komert-uts" deluzen dio.

LEINU ARTEKO BURRUKA

Salapenen beste iturririk aipatzen dituztenen artean, batzuek kontu ontan sartzen dute "Bamaliko-tarren aldeko elkartea". Auek esana dute:

"Ba dakigu Ndongmo-az, Egoaldeko Kamerun-goak asmatu izan dala; ta an, Ahidjo jauna leendakari-tara irizit zan ezker. Onela leendakariak Gubernuaren itxita auldu nai du; oni, mendebal aldetik datorrio bere indarra. Emen au irizit nai da: geroago ta gutxiago izan ditezela Gubernuan bamaliko-tarrak, baita beste leku aukerakoetan ere. Aukerik onenak Egoaldekoentzat gorde nai dituzte, ta auen aginpea leenbalen ekarri".

Onela jarraitzen du agiri onak bere esanetan, gotzaiaren izenik ere, aipatzeke, eta bere leinu edo tribuak arrazoiak bakarrik adieraziaz. Bamalikotarrak ditutenak, Ahidjo-k bere aginpea galduko balu, Kamerun iru zatitan banatuko omen litzake. Argibide onak ezta ezertxo ere argitzen gotzai auzipe-



Ndongmo Gotzaiaren kontra aurkitu diran proba bakarrak: fusil zaar pare bat.

tuaren egoera. Asmo atek guziak egia balira, Kamerun-go leendakaria, bere aginte kontrako etsaikerietatik aske geldituko omen litzake. Ndongmo jauna, berak erraz egin dezake, auzipetik aterata.

MUNDU GUZIKO LEGE GIZONEN BATZORDEA

Bitarlean, Parisek Mundu guziko lege gizonen Batzordea eratu du, Yaunde-ko auzipetuen alde. Jan Suret Canalek dionez, Ernesto Ouandie buruzagiaz gain, gotzaiak ta amarkako talde ezagun batzuek jarriko dira salatuak aukituen. Auzi onen garrantzia aundia dalako, bertan gizonen eskubide arabera eraman bearra dago auzia; Kamerun barruko arazoetan naastu gabe.

Luzatut andreak ere, auzi au lege bidez bakarrik eraman bear dala esaten dute. Politika ez da kontuan artu bear: "Gozzai aifia aldeten degu, dio, iraultza". Aitoritzen dute au ere: Gubernurkin arremnatan sartzea oso zalda dutela. Monseñor Ndongmo ta Ouandie jaunaren "aitorpenak" magnetofon zintan artuak dituzte. Baifia auan galdera erantzunak etenak daude alde askotan. Ork oso eragabek egiten dira.

MUNDU GUZIKO IRU AZTERTZAILLE YAUDE-N

Egin diran aslegin auel eskerrak, Yaunde-ko auzi orretan iru eralguntzako lege gizonak izango dituzte beren ordezkariak Yaunde-n.

—OO—
Gora beera auek, Kamerun-go aidea oso laifotua jarri dute; batez ere Gubernu ta Elizaren arteko arremnatan kinka txarrean dira. Ala ere, Mons. Zoak au esan du:

"Kamerun-en leendakariaren eta gotzai katolikoan artean eztago bururkarik. Nolanai, gotzai baten auzia, ez da egumeroko zopa; ta gutxiago oraindik diruketa aurrerapenetan ain auita dan gotzai baten auzia.

E. N.

NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

Ez. FAGOR,ek

sukaldian





Uria edo erria esatean, Luis Peña Gantxegi, Mikel Garay, Iñaki Galarraga, guk bizi izateko sortu dugun tokia esan nahi da. Azaleatik eta zabalean itz ori artuaz, jakiña. Gure bizitza, gehienbat, or egiten dugu. Erri bateko bizi-giroa esatean, berri, leku orrek guri erasten diguna esan nahi da, gure gorputz-animeri itsastan zalena.

Gure bizileku dugun erriaz mintzo girenean, nahiz itzegiten dugunean, oso gutxitan aitatzen dugu, an bizi girenok gure erri orrek daukagun etengabeko alkarrizketa. Ez-eta ere, ez dugu aztertu, zergatik den erri bat ederra edo nazkagarria. Ez da aski antziñakoa goraitzea, lehengo gauzarik onena balitz bezela. Ez-eta ere ez da aski, edozein berritze aiputan erabiltzea aurrerapenaren izenean, gauzarik onena balitz bezela. Orrela ari geranean, lehenaren eta orainaren artean ebaki aundi bat ezarri besterik ez dugu egiten; eta erriaren esan-nahia illun gelditzen zaigu. Erria, «gure eskuz» egindako zerbaite da, an azi ta bizitzeko. Erri bat ez da obe, antziñako etxe asko ditulako, ez-eta gaurok etxe-tzar ugari dauzkalako. On edo txahar da erri bat, barten bizi diranen bearrerri, era guzitateko beharrieri, erantzuten dien neurrian.






Eguneroko atzeaurreak, dela konprak egitea, lanera joatea, dela aurrak jasotzea eskolatik ateratzean, dela kotxeak nun-utzi..., dena dela, nahiz tankera ortako nahiz besteko gauzetan, ori guzia eraturik eta erreturik daukan uria da bizilekurik atseginena.

Erriaren zati bakoitza, erabateko eta etengabeko antzerki bat bezela da. An ageri dira kontu-ezin-ala antzeslari, nahiz egotezkoak nahiz ibillizkoak. Eta antzerki ikusle bakoitza, era batera ikusle da eta bestera egille. Zenbat eta zenbat antzeslari Aurrena pertsonak, batzuk aundiak eta besteak txikiak, bizidunak eta bizarrik gabeak, sonbreroakino edo txapelakino, norbait aurraren kotxearekin, beste norbait bizikletan edo mototan, an talde bat, anunzioak, elizako ezkilak, anbulantziaren tutua, zakur baten zaunka, arbolak, autobusak, autoak ibillian, autoak geldi, edadeko pertsonak eguzkia artzen, aurrak jolasean, zoruaren dibujoak eta kolorea, espaloaren neurria, autobusen geldi-lekuak..., oiek denek osatzen dute erri bat. Orregatik, bakoitza ezagutzekoa eta aztertzekoa eta ondu beharrekoa da, alkarrizketa eta arremanak betekoak izan ditezten.

Argazkiek, gure errietako zati batzuk erakusten dizkigute, nunnahiko bazterrak. Denek, erri-gauza jakin-jakiñak egeri dituzte, zenbait gauza galtzen nola dijoazen erakusten digutela.

Gure errietako bizi-giroa

Luis Peña Gantxegi
Mikel Garay
Iñaki Galarraga



Oñezkoentzat eta kotxezkoentzat bideak ezartzeko, oso lege gutxi dago. Eta orregatik sortzen dira zenbait leku, oñezkoak eta kotxezkoak nastuan dirala, elkarren aurretik pasatzen; eta bidegurutze-keta ortan, oso nekeza da oñezkoentzat bidea zuzen eta segrian jartzen. Oñezkoak nundik nora ibilli erakusteko jarrirek dagoen esiek garbi erakusten dute esan duguna. Bal-eta ere garbi erakusten dute, eziñezkoa dala lekuan ez dagoekin eran bideak markatzea.

—oO—

Zati au, berak erakusten dun be-

zela, erribarruko da; eta marka-tzeko erak ondaturik dago. Or eziñezkoa da batzuentzat eta besteentzat bideak markatzea. Ori, paseatzeko bide bat da berez, Lazkao eta Beasain artean; eta orain alperrik galdua dago dabiltan autotuen aundiz eta ugariz. Bide ortatik dabilen autoen emana, gehiegizkoa da, pasa behar duten errietako jendearekin konparatuta.

—oO—

Tallerrek ekartzen duten trafikoak, dela ustutera dela kargatzera, asko galtzen du giroa. Tellerak dauden lekutan, oñezkoen bi-

deak moztzen dira. Eta askotan, dendak dirala-ta, jende asko ibilli behar dun tokian. Eta trafikoaren emanak galerazi egiten du oñezkoak eta autozkoak nahastuan ibiltzea, arrixkorik gabe beintzat, lekuak eskatzen lukeen bezela.

